



AIARAKO UDALAK 2021eko AZAROAREN 18an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera jauna

Susana Martín Benavides andrea

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita bateko azaroaren hemeretziaren, hemezortziak direnean, Udalbatza Osoa telematikoki bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko urriaren 21ean eginiko Ohiko Osoko Bilkuraren Akta

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du aktaren 12. puntuan soilik akordioa jaso dela, ez direla bozketak ezta botoen edukia ere adierazi.

Idazkari andreak akats bat dela adierazi du, eta gaiaren inguruko aipua zein bozketaren emaitzak jasoko dituela.

Ez denez gaiaren inguruko ezer gehiagorik esan, Akta aho batez onesti dute bertaratutakoek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10).

2.- Onestea, bidezkoa bada, Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuaren eskumenak lagatzeko eta hartutako garraio-zerbitzuaren kudeaketaren Enkomiendarako Hitzarmena, Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artekoa. Hitzarmenaren bidez dirulaguntza izenduna emango da Eguneko Arretarako Landa-zentroa finantzatzeko



Udalbatzari jakinarazi zaio 2021eko azaroaren 9an gai honen inguruan Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen aldeko Irizpena.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du beste batzuetan aipatu izan duela, baina Udalaren eskubide bat dela zerbitzu hori eskaintzea, eta Aldundiak baliabide gehiago eskaini beharko lizkiokeela. Horregatik, bere taldea abstenitu egingo da.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du Eguneko Arretarako Zentroa ireki zenetik aipatutakoa izan dela zentroa finantzatzeko modua.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da horren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 7 (6 EAJ-PNV ETA 1 AIARA BATUZ)

ABSTENTZIOAK: 3 EH BILDU

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak Udalari bidali diola Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuaren eskumenak lagatzeko eta hartutako garraio-zerbitzuaren kudeaketaren Enkomiendarako Hitzarmenaren eredia. Hitzarmena Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artekoa izango da; hitzarmenaren bidez, 2021 ekitaldirako Eguneko Arretarako Landa-zentroaren finantzaketarako dirulaguntza izenduna emango da.

IKUSI DA.- 2021eko azaroaren 9ko Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- 2021eko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dago.

Udalbatza Osoak, bertaratuen gehiengo osoaren aldeko botoekin, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea, Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuaren eskumenak lagatzeko eta hartutako garraio-zerbitzuaren kudeaketaren Enkomiendarako Hitzarmena, Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artekoa. Hitzarmenaren bidez dirulaguntza izenduna emango da Eguneko Arretarako Landa-zentroa finantzatzeko.



**“EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN ZERBITZUAREN
ESKUMENAK LAGATZEKO ETA HARTUTAKO GARRAIO-ZERBITZUAREN
KUDEAKETAREN ENKOMIENDARAKO HITZARMENA, UDALAREN ETA
ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA. HITZARMENAREN BIDEZ
DIRULAGUNTZA IZENDUNA EMANGO DA EGUNEKO ARRETARAKO
LANDA-ZENTROA FINANTZATZEKO**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 1a

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, Emilio Sola Ballojera jn., Gizarte Politiken Foru Diputatua. Horrek Arabako Foru Aldundiaren ordezkartzan eta izenean jarduten du, uztailaren 5eko Diputatu Nagusiaren 325/2019 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenaren arabera. Gainera, 2021eko otsailaren 2ko 42/2021 zenbakiko Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernuaren Kontseiluaren Akordioaren baimena du lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzeko.

Eta, beste aldetik, Gentza Alamillo Udaeta jn., Aiarako Udaleko alkatea.

Aldeek, biltzen direnen izenean eta ordezkartzan, eta jarduketa hau egiteko legezko eskumena dutela,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

Funtsezkoa da 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa gure Gizarte-ongizaterako; botere publikoak arautzen ditu, eskubidearen titularrak diren pertsona guztiei lege horretan eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkon) ezarritako zerbitzu eta prestazio sozialak ematen direla bermatzeko. Hori Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera izango da; mapa hori 2016ko uztailaren 22an berretsi zuten Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko Udalek, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan.

12/2008 Legearen 22. artikularen arabera, Eguneko Arretarako Zerbitzua udalen eskumenekoa da eta esleipen handia barne hartzen du; izan ere, Lurralde Historikoko udalerririk gehienak tamaina txikikoak dira eta biztanle gutxi dituzte, eta ez dute zerbitzu hori behar bezala eskaintzeko beharrezko azpiegiturarik.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31. artikularen arabera, Aldundiek lurralde osoan udalerrien eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatu beharko dute. Gainera, testu horren 36. artikularen arabera, Aldundiek, besteak beste, udalerririk zerbitzuei dagokienez laguntza teknikoa, ekonomikoa eta juridikokoa eskaini beharko dute. Horrenbestez, komenigarria da Arabako Foru Aldundiak udalerrien eskumenekoa den zerbitzua ematen parte hartzea.



Horregatik, Lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak arbitratzeko, komenigarria da Arabako Foru Aldundiaren eta udal-eskumeneko hainbat funtzio gauzatzeko hitzarmena sinatu nahi duten udalen arteko lankidetzaren esparru bat osatzea.

Lankidetzaren horren legezko oinarria urriaren 1eko Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 140. eta hurrengo artikuluetan jasotako administrazioen arteko lankidetzaren, kooperazio eta laguntza printzipioak dira, baita Hitzarmen honetan gauzatutako Gizarte Zerbitzuen Legearen 43. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera.

Eguneko arretarako zentroari dagokionez udalak hainbat funtzio ditu, horregatik, Hitzarmenak hainbat izapide eta prozedura administratibo gauzatzeko funtzioei dagozkien eskumenak lagatzeko lankidetzaren formula barne hartzen du, honako gai hauei dagokienez: gizarte-prestazioak, prezio publikoaren bilketa eta eguneko arretarako landa-zentroari dagokion garraio egokituaren zerbitzua kudeatzeko enkomienda. Hitzarmena 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera egin da

Aintzat hartu da foru lankidetzaren oinarrietako bat dela zerbitzuaren kalitatea eta intentsitatea udalerritik guztietan antzekoa izatea sustatzea, beharrezkoa da zerbitzua eta prezio publikoak arautzen dituen araubidea berdina izatea hitzarmena sinatzen duten udalerritik guztientzat, eta, gainera, eskumenen lagatzea erraztea; hori dela eta, zerbitzuaren eta haren prezio publikoaren araubidea erantsi da hitzarmenaren eranskin gisa.

Hitzarmen hau atxikitzen zaizkion lurralde historikoko udalerririk aplikatuko zaie, honako hauetan adierazitako baldintzetan:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea.-

1.1. Hitzarmen honen xedea da Arabako Foru Aldundiari lagatzea Aiarako Udaleko eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren arloko eskumenak eta eguneko arretarako landa-zentrori joateko garraio egokituaren zerbitzua kudeatzeko esleipena.

1.2. Hitzarmenetik kanpo geratuko dira eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren informazioari, balorazioari, diagnostikoari eta orientazioari buruzko udal-eginkizun eta eskumen guztiak, oinarriko gizarte zerbitzuetakoak direnez, zuzenean udalerririk eta/edo kuadrillek emango dituztelako. Era berean, oinarriko gizarte zerbitzu horiek erreferentziako profesional bat esleituko dute. Profesional horrek bere gain hartuko du kasuaren koordinazioa; Banakako Arreta Programa egingo du, edo, bidezkoa bada, Arreta Pertsonalizatuko Plana, pertsona edo familia erabiltzailearen parte hartzearekin; esku hartzearen jarraipena egingo du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osoarekin koordinatuta, eta, interesduneri orientazioa eta laguntza emango die beren eskaera formalizatzeko eta kasuan kasuko espedienteak bideratzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko.



Bigarrena. Eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuaren araubidea eta hitzarmenaren eraginkortasuna.

2.1. Arabako Foru Aldundiak eta Aiarako Udalak konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau sinatzeko Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuaren Udal Araudi Erregulatzailerak onetsi eta dagokion Ordenantza Fiskala onetsi ondoren. Horiek biak I eta II. eranskinetan daude atxikita hurrenez hurren.

2.2. Araudi hori onetsi eta indarrean egotea ezinbesteko baldintza da Hitzarmena eraginkorra izan eta indarrean egoteko.

Hirugarrena. Eskumenak lagatzeko irismena.-

3.1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskuordetuko dio honako eskumen hauek egikaritzea eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuaren alorrean:

- a) Oinarrizko gizarte zerbitzuek izapidetutako espediente guztiak baloratzea, horretarako ezarritako Balorazio eta Orientazio Batzorde Teknikoaren bidez. Adostasunik ez badago, espedientea bideratu duen udalak/kuadrillak izendatutako pertsona sartu ahal izango da.
- b) Proposamen teknikoa egiten denetik (udaletako gizarte zerbitzuek egiten dutena) hori erabat amaitu arte izapidetzea zerbitzu hori ematearekin zerikusia duten administrazio prozedurak, horretarako behar diren ebazpenak emanez, eta, bereziki, prestazio hori jasotzeko eskubidea aitortzeari, eskuratzeari, eteteari eta/edo azkentzeari buruzkoak, eguneko arretarako landa zentroko zerbitzua arautzen duen Udal Araudi Erregulatzaileran ezarritakoaren arabera.
- c) Zerga ordenantzan ezartzen diren zerbitzuen prestazioaren prezio publikoak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, toki ogasunak arautzen dituen araudian eta, osagarri gisa, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera.
- d) Eguneko arretarako landa zentroko zerbitzu alorrean zehapen ahalmena egikaritzea, eta legez egin beharreko ikuskaritzak eta egiaztatzeak egitea.
- e) Lagatutako eskumenak egikaritzuz emandako egintzen aurka jarritako administrazio errekurtsioak ebaztea.

3.2. Arabako Foru Aldundiari dagokio eskuordetze bidezko eskumen hori egikaritzea, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta bereziki zerbitzuaren araubidearen eta bigarren klausulan aipatutako prezioaren arabera.

Laugarrena. Eguneko arretarako landa-zentroko garraio egokituaren zerbitzua ematearen kudeaketarako enkomendaren irismena.

4.1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiaren esku utzi du eguneko arretarako landa zentroko garraio egokituaren zerbitzua, eta Aldundiak onetsi egin du.



4.2. Arabako Foru Aldundiak garraio egokituko zerbitzua behar bezala emateko behar diren jarraibideak eta aplikazio irizpideak eman ahal izango ditu.

4.3. Kudeaketa esleipen hori Arabako Foru Aldundiak gauzatu ahal izango du zuzenean edo zeharka, kontratazioa edo hitzarmena legez ezarritako moduan eginez, eta guztizko iraupenak ezingo du hitzarmen honen indarraldia gainditu.

Bosgarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordea.

5.1. Gobernu eta Koordinazio Batzordea sortu da, hitzarmen honetan jasotako hizpaketak betetzen direla jarraitzeko, kontrolatzeko eta sustatzeko eta hitzarmena interpretatzeko.

Honako hauek osatuko dute Gobernu eta Koordinazio Batzordea:

- Udaleko sei (6) ordezkari, eremu hauetako bakoitzeko bi ordezkari egongo direlarik: Aiara, ipar-ekialdeko Araba eta hegoaldeko Araba.
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko hiru (3) ordezkari.

5.2. Gobernu eta Koordinazio Batzordeari dagokio antolamendu eta funtzionamendu arautegi propioa sortzea.

5.3. Hitzarmen honetan eta bere antolakuntza eta funtzionamendu araubidean aurreikusita ez dagoen guztirako, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzionamendua Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako kide anitzeko organoen funtzionamendu arauen arabera jokatu da.

Seigarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordearen eginkizunak

6.1. Honako hauek dira Gobernu eta Koordinazio Batzordearen eginkizunak:

- a. Hitzarmen hau planifikatzea, koordinatzea, jarraitzea, kontrolatzea, txostena egitea eta interpretatzea.
- b. Hitzarmen honetan aldaketen edo berrikuntzen berri ematea.
- c. Hitzarmen honetan berriaz jasota dauden eskuduntzak egikaritzea.

6.2. Gobernu eta Koordinazio Batzordeak urtero jasoko du hauei buruzko informazioa:

- a. Hitzarmenaren egikaritze egoera, baita ekitaldi bakoitzeko gorabeherak ere.
- b. Erakunde sinatzaileek egin ditzaketen proposamenak, kexak edo iradokizunak.

6.3. Urtero Arabako Politika Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaian aurkeztu beharko da Arabako Lurralde Historikoko eguneko arretarako landa zentroko jarduerari buruzko memoria, lurralde horretako udalekin eguneko arretarako landa zentroko zerbitzua emateko sinatutako hitzarmenen esparruan.



Zazpigarrena. Eskuordeturiko eskumenak eta kudeaketa esleipena egikaritzea.

7.1. Eskumenak eskuordetzean ez da titulartasuna lagako, eta hala, une oro, titulartasuna udalarena izango da, eta, beraz, egikaritzea bakarrik eskuordetuko da.

7.2. Eskuordetutako eskumenen egikaritzearen eta esleitutako zerbitzuaren garapenaren berri emango dio Arabako Foru Aldundiak Gobernu eta Koordinazio Batzordeari, urtean behin behintzat.

7.3. Aiarako Udalak edonoiz eskatu ahal izango du Arabako Foru Aldundiari lagatako eskumenak egikaritzeari buruzko informazioa, baita esleitutako zerbitzuaren prestazioari buruzkoa ere. Horretarako idazkia bidali beharko dio Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailari. Arabako Foru Aldundiak eskatutako informazioa bidali beharko du gehienez ere eskaria Arabako Foru Aldundian sartu eta erregistro egun horretatik aurrera zenbatzen hasita hogeitun egun balioduneko epean.

Zortzigarrena. Ekonomia eta finantza araubidea. Aldeen konpromisoak.

8.1. Aiarako Udalaren konpromisoak (EALZ duten udalerriak)

- a) Aiarako Udalak Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua hartzen duen higiezin mantendu eta behar bezala zaindu beharko du, eta hornikuntzengatik sortutako gastuak ordaindu beharko ditu.
- b) Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuaren prestazio integralaren gastuetarako ekarpena izango dela Aiarako Udalak zerbitzu horretan okupatutako plaza bakoitzaren % 20.

8.2. Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak

Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuaren prestazio integralaren gastuetarako ekarpena izango dela haren kostu osoaren % 80 eta garraio egokitua emateagatikosten % 100.

8.3. Urtero likidatuko dira aurreko puntuetan hartutako konpromisoak.

Bederatzigarrena. Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio izaera dauka. Hitzarmena eta hura egikaritzean emandako egintzak eta erabakiak edo hitzarmenetik eratorritakoak berrikustea administrazioarekiko auzien ordenari dagokio.

Hamargarrena. Iraupena.



10.1. Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du eta indarrean sartuko da sinatzen den egunean bertan. Hitzarmenaren indarraldia eta eraginkortasuna bigarren klausulan aurreikusitakoaren araberakoak izango dira.

10.2. Aldeek aho batez hala adosten badute, hitzarmena amaitzean luzatu ahal izango da, hasierako iraupenaren iraupen bererako. Aldeetakoren batek hitzarmena ez luzatzeko asmoa badu, hitzarmena bukatu baino, gutxienez, sei hilabete lehenago jakinarazi beharko dio besteari asmo hori.

10.3. Udal batek, edozein arrazoi dela-eta hitzarmen hau ez luzatzea erabakitzen baldin badu, ez da hitzarmena deuseztatuko, oinarrizko eremuko gainerako udalei dagokienez.

Hamaikagarrena. Hitzarmena deuseztatzeako arrazoiak.

11.1. Honako hauek izango dira hitzarmena deuseztatzeako arrazoiak:

- a. Aldeen arteko erabakia.
- b. Aldeetako edozeinek hitzarmena salatzea, ondorioak izan behar dituen eguna baino gutxienez sei hilabete lehenago.
- c. Gobernu eta Koordinazio Batzordearekin ados ez egotea hitzarmen honetako oinarrizko klausulak interpretatzeari dagokionez.
- d. Oinarrizko betebeharrak ohikoak ez betetzea. Deuseztatze arrazoia aplikatzeko, hitzarmena deuseztatu nahi duen erakundeak aurretiaz Gobernu eta Koordinazio Batzordeari jakinarazi beharko dio deuseztatzeako arrazoia eta horretarako asmoa duela. Jakinarazpen hori egin ondoren, batzordeari deialdia egingo zaio eta batzordea gehienez ere hamabost egun balioduneko epean bildu beharko da, aurretiaz beste aldeari izapidetzea eginda, ebazpenaren arrazoiari buruzko txostena emateko. Batzordearen txostena eman ondoren, erakunde interesatuak dagokion ebazpena emango du.
- e. Hori betetzeko gerora sortutako ezintasuna, eta halakotzat hartuko da, besteak beste, Udalak onetsi edo aldatzea eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuari buruzko araudi bat, aurrez adostutakoa ez dena, hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritako baldintzetan eta salbuespenekin.
- f. Indarraldiko eta luzapeneko gehieneko epea igarotzea.

11.2. Hitzarmena ebazten edo iraungitzen denean likidazioa hasiko da, eta hala, eraginpeko udalari aurretiazko entzunaldia eman ondoren, Arabako Foru Aldundiak egingo du eta Gobernu eta Koordinazio Batzordeak onetsiko du.

11.3. Aiarako Udalak alde bakarrean hitzarmena deuseztatzea ebaztea, Arabako Foru Aldundiak hitzarmenean jasotakoa bete ez duelako. Hala, Arabako Foru Aldundiak dagokion kalte-ordaina bere gain hartu beharko du, sortu daitezkeen kalte-ordainen ondorioz.



Hamabigarrena. Datuen babesia.

Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesaren eta datu horien zirkulazio askearen inguruko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datua Babesteko Erregelamendu Orokorra onesten duen 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), bai eta une bakoitzean aplikatu beharreko datuen babesari buruzko gainerako araudia ere, eta konpromisoa hartzen dute araudi horietan aurreikusitako eskakizunak betetzeko, hitzarmen honen inguruko pertsona fisikoetatik lortutako datuei dagokienez.

Hamahirugarrena. Hitzarmenera atxikitze prozedura.

Hitzarmen hau sinatzeko Udaltzaren erabakia beharko da. Erabaki horretan, Udaltzak hitzarmena sinatzea onetsi beharko du eta guztiz onetsi klausula guztiak, eta, gainera, hitzarmen honetako bigarren klausulan aurreikusitako araubidea onetsi beharko du aurretiaz.

Emilio SOLA BALLOJERA

Gizarte Politiken saileko foru diputatua eta
Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde
administrazio kontseiluko lehendakaria
Diputado Foral de Políticas Sociales y
Presidente del Consejo de Administración del
Instituto Foral de Bienestar Social

Gentza ALAMILLO UDAETA

Aiarako Udaleko alkatea
Alcalde del Ayuntamiento de Ayala”

Bigarrena.- Alkate jauna gaitzea Hitzarmena sinatzeko eta Arabako Foru Aldundiari bidaltzeko.

3.- Migrazioarako Euskal itun Soziala

Udaltzari jakinarazi zaio 2021eko azaroaren 9an gai honen inguruan Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen aldeko Irizpena.

Karmele Publación Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du ados dagoela dokumentuarekin, baina ez dela airean geratu behar, gauzatu egin behar da; izan ere, batzuetan onesten diren testu asko gauzatu gabe geratzen dira. Itunak honakoa dio: “udal-jarduketa bat egin beharko da bizikidetzaz hobetzeko”. Ez dakite zein puntutaraino babesten diren migratzaileen eskubideak. Horregatik, hainbat batzordetan eskatu dute migratzaileei harrera egiteko protokolo bat osatzeko, Aiaran behar bezalako harrera egiteko. Horrez gain, adierazi du



genero-berdintasuna printzipio gisa jasotzen dela, eta berdintasun foroetan ez dagoela migratzaile bat bera ere. Hori guztion artean landu eta konpondu beharko dugu. Halaber, “hizkuntzak ikasteko eskubidea” aipatu du; gai horretan esfortzu handi bat egin beharko dugu, hizkuntza oso garrantzitsua delako integraziorako. Azkenik, adierazi du itunean migratzaileen elkarteekin lankidetzaz aipatzen dela; horrekin oso ados dago, baina landu egin beharko dugu. Orokorrean ados daude itunarekin eta aipatutakoa azpimarratu nahi zuten.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du dokumentu bat onestean, onetsi egiten dutela adierazitakoarekin ados daudelako eta uste dutelako dokumentuaren edukia garrantzitsua dela. Dagokion Batzordean eztabaidatu zen eta migratzaileei harrera egiteko protokoloaren zirriborroan lanean ari gara. Poz-pozik hartuko dute edozein ekarpen.

Ez denez gaiaren inguruko ezer gehiagorik esan, gaia bozkatu dute bertaratutakoek eta aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Migraziorako Euskal Itun Soziala, “jaso nahiko genukeena eskaintzea”.

IKUSI DA.- 2021eko azaroaren 9ko Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen aldeko txostena.

Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10 bertaratu dira) honako **ERABAKI** hau hartu du:

LEHENENGOA.- Onestea Migraziorako Euskal Itun Soziala, “jaso nahiko genukeena eskaintzea”. Horren testua honako hau da:

“JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA”

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne zuzenbidean eta Europako zuzenbidean, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan zein giza eskubideen zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorkinek, asilo eskatzaileek, Bidaidetik Gabeko Adingabeek eta Gazte Atzerritarrek (BGAA/BGGA), iragaitzazko migratzaileek edo zaurgarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonen erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena



egiten du, edo ondare komuna partekatzeko aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna. Migrazioari dagokionez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du, herrialderik aberatsenak migrazio fluxuak eta kultura aniztasuna modu egokian integratzen jakin izan dutenak dira, horrek lasaitasun demografiko erlatiboa ematen du.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamatutako aurreiritziek errendimendu alderdikoa lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredu eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabean. Sintoma kezagarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitortpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migraziorako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektzio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharriaz dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide-prozesuaren parte gisa heltzea.

ABIAPUNTUAK Migraziorako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, erakunde eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu:

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri anitzetako pertsonen osatutako euskal gizartearen defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onesten dugu, konpromiso partekatu gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharria. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharriaz erantzun ahal



izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkunderari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

ZEHARKAKO AUKERAK. *Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:*

I. Bizikidetzak. *Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuiatu egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.*

II. Giza Eskubideak. *Oinarritzko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororen aurrean.*

III. Zeharkakotasuna. *Euskal administrazioen sektore-politikan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna,...) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.*

IV. Kohesioa. *Irrotasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarritzko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.*

V. Hezkuntza. *Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.*

VI. Tokiko esparrua. *Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzak hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal-ekintzak lehentasuneko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.*

VII. Berdintasuna. *Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzak eraikitzeko oinarritzko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politikan eta gizarte babeseko politikan genero-ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.*

VIII. Hizkuntzak. *Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa.*

IX. Lankidetzak. *Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarrizketa eta lankidetzak iraunkorreko mekanismoak ezarri, migratzaileen erakundeek harreraren eta*



integrazioan duten zeregina sustatuz. Esparru hoentan beste edozeinetan baino gehiago lankidetzaren beharrezkoa da. Banatzen gaituenaren aurrean batzen gaituena partekatzea.

KONPROMISO ZEHATZAK. Aurreko guztiaz gain, erabateko babesaren ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapenari, dagozkien eskumen-esparruetan:

1. *Erantzunkidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzaren leialdean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.*

2. *Irrotasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektorala lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.*

3. *Immigrazio erregularizatua. Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak Europan planteatzen dituen beharrianak.*

4. *Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, Europan, estatuan eta Euskadin.*

5. *Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarritz emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketen biktimengan.*

6. *Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzazko migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.*

7. *Bidaidetik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaidetik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGA). Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharrak, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatua, bidezko eta egokia eskaintzeko.*

8. *Esku-hartze humanitarioa. Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.*

9. *Prebentziozko esku-hartzea. Lankidetzaren proiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.*



10. Bizikidetzaren kultura. Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkertasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuaiatuta”.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Iñaki Isasi Taldearekin Hitzarmena, Euskadiko Ziklokross Txapelketa egiteko. Horretarako zuzeneko dirulaguntza emango da

Udalbatzari jakinarazi zaio gai honen inguruko 2021eko azaroaren 9ko Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordean hartutako aldeko irizpena.

Ez denez gaiaren inguruko ezer esan, gaia bozkatu dute bertaratutakoek eta aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak interesa du udalerrian kirola sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren Lankidetzeta-hitzarmena Iñaki Isasi Taldearekin, 2021. urteko Euskadiko Ziklokross Txapelketa egiteko. Hitzarmenaren bidez zuzeneko dirulaguntza emango da.

IKUSI DA.- Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak 2021eko azaroaren 9an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmenak arautu egiten du Aiarako Udalak Iñaki Isasi Taldearen alde emango den zuzeneko dirulaguntza, eta 2021eko udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida izenduna dago, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10 bertaratu dira) honako **ERABAKI** hau hartu du:

LEHENENGOA.- Onestea Aiarako Udalaren Lankidetzeta-hitzarmena Iñaki Isasi Taldearekin, 2021. urteko Euskadiko Ziklokross Txapelketa egiteko. Hitzarmenaren bidez 4.000 euroko zuzeneko dirulaguntza emango da eta honako hau da hitzarmenaren testua:

“LANKIDETZA-HITZARMENA IÑAKI ISASI TALDEAREN ETA AIARAKO UDALAREN ARTEAN, EUSKADIKO ZIKLOKROSS TXAPELKETA ANTOLATZEKO

Arespalditzan, 2021eko azaroaren (e)(a)n.



HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

*Alde batetik, **GENTZA ALAMILLO UDAETA** Aiarako Udaleko alkate-udalburu jauna, Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta, Naiara Lazpita Marcos andreak, dena ziurtatzen duena.*

*Beste aldetik, **jn./and.**, adinez nagusikoa (NAN zk.:), **IÑAKI ISASI TALDEAREN** izenean (IFZ:).*

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkarietan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrenak, Peña Isasi Taldea Elkartearen izenean eta horren ordezkarietan (IFZ:). Ordezkariak bera dela eta ordezkari izateko eskumena duela egiaztatu du Elkartek berak igorritako egiaztagiraren bidez.

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau egiteko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

***IÑAKI ISASI TALDEA** Aiaran 2021eko abenduaren 26an egingo den Euskadiko Ziklokross Txapelketa antolatzen ari da.*

*Aiarako Udalak kirola sustatu nahi du udalerrian; hortaz, honako **ESTIPULAZIO** hauek ezarri dituzte:*

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

*Hitzarmen honen xedea da **AIARAKO UDALAREN** eta **IÑAKI ISASI TALDEA** elkartearen arteko lankidetzaren formalizazioa, 2021eko abenduaren 26an egingo den Euskadiko Ziklokross txapelketa antolatzeko.*

BIGARRENA.-

***AIARAKO UDALAK** egin beharreko sustapeneko jarduerak izango da 2021eko abenduaren 26an egingo den Euskadiko Ziklokross Txapelketa antolatzeko gastuen zati baterako dirulaguntza ematea.*

Txapelketaren antolatzaileak segurtasun eta osasunari dagozkion indarrean dauden arau guztiak behar bezala bete beharko ditu eta betetzen direla bermatu; Aiarako Udala ez da inolaz ere Txapelketak eta Martxa egitean sor daitezkeen kalte edo galeren erantzule izango.



HIRUGARRENA.-

Lankidetzeta-hitzarmen honi bideratutako udal-dirulaguntza 4.000,00 eurokoa da.

LAUGARRENA.-

Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da:

Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa izango da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Gainerako % 20 ordainduko du hitzarmen honen BOSGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa jaso ondoren.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du egokitzat jotzen duen informazio oro.

Ordainketa egin baino lehen, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen Egiaztagiria aurkeztu beharko da, edo, hori izan ezean, Udalak dagozkion erakundeei informazio hori eskatu ahal izateko baimena izango du.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du egokitzat jotzen duen informazio oro.

BOSGARRENA.-

DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA Aiarako udalean aurkeztu beharko da, gehienez ere, ***2022ko urtarrilaren 3In***, nahiz eta gastuak dirulaguntza eman den urte naturala amaitu baino lehen eman behar diren, hau da, 2021. urtea amaitu baino lehen.

Adierazitako epean eskatutako dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ezean, dirulaguntza baliogabetu egingo da eta aurretiaz emandako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

*Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:*

- a) *Jasotako dirulaguntza guztien adierazpena, erakunde publiko zein pribatuenak izan, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.*
- b) *Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen Egiaztagiria aurkeztu, edo, hori izan ezean, Udalak dagozkion erakundeei informazio hori eskatu ahal izateko baimena.*
- c) *Jardueraren garapenari buruzko honako dokumentu hauek:*
 - *Egindako jarduerari buruzko memoria.*
 - *Jardueraren Gastu eta Diru-sarreraren Balantzea, erakunde publiko eta pribatuek eman ditzaketen dirulaguntzak barne hartuta. Gainfinantzaketa egotekotan, dirulaguntza dagokion zenbatekoan murriztuko da.*
 - *Gainerako gastuak: justifikazio-fakturak, horiek igortzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenak. Faktura bakoitzari dagokion ordainketa-ziurtagiria atxiki beharko da.*



SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmena 2021eko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

ZAZPIGARRENA.-

IÑAKI ISASI TALDEAK egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzara eta babesa jaso beharko du.

ZORTZIGARRENA.-

IÑAKI ISASI TALDEAK hitzarmen honetan jasotako betebeharrak gauzatzeko ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzara hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten lau orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berarekin beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA, IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos

Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua.

IÑAKI ISASI TALDEAREN PRESIDENTEA

Sin.:

BIGARRENA.- Alkate-udalburua gaitzea hitzarmen hori sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Iñaki Isasi Taldea Elkarteari, Hitzarmena sinatu dezan.

5.- Onestea, bidezkoa bada, 7/2021 kreditu gehigarriaren espedientea

Udalbatzari jakinarazi zaio 2021eko azaroaren 9ko Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuetaarako Informazio Batzorde Bereziak puntu honi dagokion aldeko irizpena eman zuela.



Ez denez gaiaren inguruko ezer esan, gaia bozkatu dute bertaratutakoek eta aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Beharrezkoa da 2020ko Aurrekontuaren likidazioari egotzitako Gastu Orokorren Diruzaintzako gerakinaren zati bat, 2021erako Udal-aurrekontuaren jarraian adierazitako gastu-partidei kreditu handiagoa emateko eta 2021erako Gastu-aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2022ra arte itxaron ezin duten gastuak asetzeko.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoaren arabera (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari aurkeztu zaio kreditu aldaketa honekin batera.

AINTZAT HARTU DA.- Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuetarako Informazio Batzorde Bereziak 2021eko azaroaren 9an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua eta Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10 bertaratu dira) honako **ERABAKI** hau hartu du:

Lehenengoa.- Onestea kreditu gehigarria jarraian zehaztutako aurrekontu-aplikazioetan:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEK OA/ €
920.642.000	UDALERRIKO KALE-IZENDEGIA	13.762 €
341.481.012	ZUZENEKO DIRULAGUNTZA IÑAKI ISASI TALDEARI, EUSKADIKO ZIKLOKROSS TXAPELKETARAKO	4.000 €

ZENBATEKOA GUZTIRA: 17.762 €.

Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuko da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortuko:

A. Handitu beharreko Diru-sarreraren Partidak edo erabili beharreko diruzaintzaren Gerakina:



<u>Diru sarreraren partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa / €</u>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	17.762 €
	GUZTIRA	17.762 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta jendaurrean erakustea 15 egun baldioduneko epean, interesdunek erabakia aztertu eta nahi adina erreklamazio aurkezteko.

Hirugarrena.- Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean. Erreklamaziorik egotekotan, erabaki berri bat hartu beharko da, horiek onetsi edo baztertuta.

6.- Onestea, bidezkoa bada, 2021. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Aldaketa

Udalbatzari jakinarazi zaio 2021eko urriaren 13ko Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuatarako Informazio Batzorde Bereziak puntu honi dagokion aldeko irizpena eman zuela.

Ez denez gaiaren inguruko ezer esan, gaia bozkatu dute bertaratutakoek eta aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzieren artean 10).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2021 ekitaldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2021eko apirilaren 22ko osoko bilkuran onetsi zela, eta Udaleko 2021eko aurrekontu orokorraren eranskin gisa atxiki zen.

AINTZAT HARTU DA.- Plan Estrategikoaren I. eranskinean kultura- eta kirol-arloko dirulaguntza-jarduera xehakatuta dago.

AINTZAT HARTU DA.- Aiarako Udalak interes publikoa du udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak mantendu eta sustatzeko.

Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzieren artean 10 bertaratu dira) honako **ERABAKI** hau hartu du:

LEHENENGOA.- Aldatzea Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (kultura eta kirola arloko dirulaguntza jarduera); hala, aipatutako Eranskinean zuzeneko dirulaguntzak gehitu dira honako pertsona eta/edo erakundeentzat:



- Zuzeneko dirulaguntza Iñaki Isasi taldeari, 2021eko abenduaren 26an egingo den Euskadiko Ziklokross Txapelketa antolatzeke. Dirulaguntzaren zenbatekoa **4.000** euro izango da eta 2021. urterako Udal-aurrekontuaren **341.481012** aurrekontu-partidan izango du kargua, 7/2021 kreditu gehigarriaren aurrekontu-aldaketaren arabera.

BIGARRENA.- Aldatzea Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren III. eranskina (Euskara arloko dirulaguntza jarduera); hala, aipatutako Eranskinean zuzeneko dirulaguntzak gehitu dira honako pertsona eta/edo erakundeentzat:

- Zuzeneko dirulaguntza Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari, 2021eko abenduaren 4an egingo den 2021eko Euskararen Egun Bateria antolatzeko. Dirulaguntzaren zenbatekoa **2.000** euro izango da eta 2021. urterako Udal-aurrekontuaren **335.481033** aurrekontu-partidan izango du kargua.

7.- Ebaztea, bidezkoa bada, 6/2021 kreditu gehigarriaren espedienteari jarritako erreklamazioa

Udalbatzari jakinarazi zaio 2021eko urriaren 13ko Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontueterako Informazio Batzorde Bereziak puntu honi dagokion aldeko Irizpena eman zuela.

Ez denez gaiaren inguruko ezer esan, gaia bozkatu dute bertaratutakoek eta aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2021eko urriaren 21ean Udalbatza Osoak hasiera batean onetsi zuela kreditu gehigarriaren espedientea. Horren iragarria urriaren 24ko 124. ALHAOn argitaratu zen.

IKUSI DA.- Jendaurrean egoteko epean zehar Pablo Imaz Isasi jaunak (sarrera-erregistroko zk.: 4005, 2021eko azaroaren 5a) erreklamazio bat aurkeztu duela. Bertan honako hau dio:

“Gastua ez da nahikoa 943.734.000 partidan ezarritako beharretarako: Administrazio-batzarrentzako dirulaguntzak, 35.000 euroko zenbatekoa. Uste dut eta aldarrikatzen dut dirulaguntza 41.014,37 eurokoa izan beharko litzatekeela.”

AINTZAT HARTU DA.- 2021eko azaroaren 8ko idazkaritza kontu-hartzaitzaren txostena; bertan proposatzen da aurkeztutako alegazioa baztertea.

Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10 bertaratu dira) honako **ERABAKI** hau hartu du:



LEHENENGOA.- Pablo Javier Imaz Isasi jaunak aurkeztutako erreklamazioa (sarrera-erregistroko zk.: 4005, 2021eko azaroaren 5ekoa) baztertea, ez dagoelako behar bezala justifikatuta eta Udalbatzak eskumena duelako Administrazio-batzarrei ematen zaien dirulaguntza baten zenbatekoa erabakitzeko. Erabaki hori soilik politikoa izango da, 2021eko azaroaren 8ko idazkaritza kontu-hartzailetzaren txostenean ezarritakoaren arabera. Txostenak espedientean du eragina.

Espedientea behin betiko onetsizat joko da jendaurrean egoteko epean beste alegazio edo erreklamaziorik aurkezten ez bada.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta 2021eko azaroaren 8ko idazkaritza kontu-hartzailetzaren txostenaren kopia bidaltzea.

8.- EAJ-PNV eta EH BILDU udal-taldeen arteko mozio adostua, udalerrian amiantoa egotearekiko neurriak hartzearen ingurukoa

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du mozioa EAJ-PNV eta EH BILDU udal-taldeen artean adostu dutela eta udalerrian amiantoa egotearekiko neurriak hartzeari buruzkoa dela. Horrez gain, esan du haien asmoa mozioan adierazitako gauza bera egitea dela Administrazio-batzarren eraikinetan.

Iratxe Parro Uzquino (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak uste duenez, hori da mozioari falta zaiona. Bi taldeak zoriondu ditu adostasunera iristeagatik.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du hainbat puntu eta horiek gauzatzeko modua adostu dituztela. Esan du Udalak konpromisoa hartuko duela amiantoa duten eraikinen mapa bat egiteko, horrelako hondakinak kentzeko prozedurak ezartzeko, horiek antzemateko sistema bat ezartzeko, sensibilizazio kanpainak abian jartzeko eta Diputatuen Kongresuan kaltetuentzako konpentsazio funts bat sortzea eskatzeko.

Ez denez gaiaren inguruko ezer gehiagorik esan, gaia bozkatu dute bertaratutakoek eta aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- EAJ-PNV eta EH BILDU udal-taldeen arteko mozio adostua, udalerrian amiantoa egotearekiko neurriak hartzearen ingurukoa.

Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10 bertaratu dira) honako **ERABAKI** hau hartu du:

LEHENENGOA.- Onestea EAJ-PNV eta EH BILDU udal-taldeen arteko mozio adostua, udalerrian amiantoa egotearekiko neurriak hartzearen ingurukoa. Horrek honako hau dio:



“UDALERRIAN AMIANTOA EGOTEAREKIKO NEURRIAK HARTZEKO BEHARRAREN INGURUKO MOZIOA

Oso ohikoa da etxebizitza, enpresa, eraikin publiko eta abarretan amianto hondarrak egotea. Europar Batasunean 2005. urtetik debekatuta dago, baina gaur egun pertsona asko bizi dira oraindik amianto fibrekin kontaktu estua dutela, askotan, gainera, jakin gabe. Horrek kalte handiak dakartza pertsona horien osasunerako. Ez dakigu zenbat dagoen, ezta non dagoen ere. Askotan amiantoa mantentze-lanak egin bitartean aurkitzen dugu, baita deskontaminazio prozesuetan, eraikinak eraistean edo eraikinak birgaitu eta egokitzean ere. Kasu horietan, bertako bizilagunek ez dakite nola jokatu, eta, kasu askotan, ez diote arazoari behar bezala aurre egiten, amiantoa kentzea oso garestia delako.

Amiantoarekiko esposizioa herritar guztientzako mehatxua da. Horrenbestez, erakunde guztien, eta, beraz, Aiarako Udalaren lehentasunezko helburua izan beharko litzateke amiantoa erabat ezabatzea.

Horregatik guztiagatik, Aiarako Udaleko EH BILDU eta EAJ-PNV udal-taldeek amiantoaren mozioaren inguruko ADOSTASUNEKO zuzenketa hau aurkeztu dute:

- Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du amiantoa duten udalerriko eraikinen mapa bat egiteko, amiantoa izan dezaketen materialen egoeraren diagnosi bat ezartzeko, eta, bidezkoa bada, elementu hori ezabatu eta kentzeko programa bat osatzeko.*

OSALANen argibideen arabera:

a) Amiantoa duten produktu guztiak legez kanpo kendu edo kontrolik gabe isurtzea ekiditeko prozedurak ezartzea. Gainera, erakunde eskudunekin hondakin hori kentzeko prozedura egokia ezartzea, ondoren horretarako egokitutako eta baimena duten zabortegietan jartzeko.

b) Amiantoa antzemateko sistema bat ezartzea, lizentzia eskatzen duten obretan amiantoa dagoen edo ez egiaztatzeko. Amiantoa badago, lan-plan bat aurkeztu beharko da, lizentzia emateko eskumena duen lan-agintaritzak onetsitakoa.

- Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du amiantoaren arazoaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat abian jartzeko eta egiten diren ekimen eta neurriak hedatzeko.*

- Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du mozio honetan jasotako konpromisoak betetzea ahalbidetzen duten dirulaguntzak bilatzeko.*

- Indarrean dauden dirulaguntza guztiak aztertu eta, beharrezkoa balitz, gehienez ere 2023 urterako dirulaguntza osagarrien atal bat sortu ondoren, Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du laguntza ekonomikoa emateko herritarrei, beren jabetzako eraikinetan amiantoaren egoeraren arabera, eraikina egokitu edo ezabatzeke, hori egiteko arazoak badituzte.*

- Aiarako Udalak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio onestea amiantoaren biktimen konpentsazio-funtsaren 2022ko Aurrekontu Orokorretan sar dadin, Eusko Legebiltzarrak 2019an onetsitako konpentsazio-funts hori sortzeko lege-proposamenaren arabera.*



9.- EH BILDU udal-taldeak aurkeztutako mozioa energia-horniduraren prezioak igotzearekiko neurriak hartzeari buruz

Karmele Población (EH BILDU) zinegotzi andreak laburki adierazi du zergatik aurkeztu duten mozioa, eta esan du herritarrei eta bereziki Aiarako herritarrei eragiten dieten puntu zehatzak idazten dituztela. Horregatik ez dute ulertzen hainbaten jarrera. Eusko Jaurlaritzari eskatu zaio autokontsumoari bideratutako partidak bikoizteko, merkaturatzaile publiko bat sortzearen bideragarritasunaren ikerketa bat egiteko eta gizarte-larrialdiko laguntzak handitzeko. Horrez gain, Foru Aldundiari eskatu zaio autokontsumoko finantzaketari bideratutako partida bat sortzeko.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da horren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 3 EH BILDU
AURKAKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Ondorioz, mozioa baztertu egin da gehiengo osoz.

10.- EAJ-PNV Udal-taldeak energiari buruz aurkeztutako mozioa

Udalbatzari jakinarazi zaio gai honen inguruko 2021eko azaroaren 9ko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio batzordeak hartutako aldeko irizpena.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV
AURKAKO BOTOAK: 3 EH BILDU
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Hori dela bide,

IKUSI DA.- EAJ-PNV Udal-taldeak energiari buruz aurkeztutako mozioa

IKUSI DA.- Obrak eta Zerbitzuak, Hirigintza eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2021eko azaroaren 9an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, bertaratuen gehiengo osoaren aldeko botoekin, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako energiari buruzko mozioa. Horrek honako hau dio:



“Energiari buruzko mozioa

*Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, honako **MOZIO** hau aurkeztu du:*

- 1. Aiarako Udalak Espainiako estatuko gobernuari eskatzen dio lanean jarraitzeko energiaren prezio garestien egungo egoera arintzeko talka-neurriak ezartzeko. Prezio garesti horiek arazo konplexu eta global batek sortu ditu. Gainera, Gobernuari eskatzea bereziki babesteko erabiltzaile zaurgarrienak eta industria. Halaber, Gobernuari eskatzen zaio egiturazko neurriak hartzeko argiaren ordainagiria egonkorragoa izateko eta energia sortzearekin lotuta ez dauden kargei gutxiago lotzeko.*
- 2. Aiarako Udalaren ustez, beharrezkoa da energiaren inguruko Estatu-itun bat osatzea; horretarako lankidetzeta eta parte-hartzea beharko da eta hainbat gai barne hartu beharko ditu: energia aurrezteak, gasa estrategikoki gordetzeko beharra, prezioen gardentasuna eta egonkortasuna bermatzea, energia berriztagarriak, industria-laguntzak, energia eta ingurumen trantsiziorako sustapena eta gizarte konpromisoa.*
- 3. Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio industrian eta etxebizitza-sektorean energia-eraginkortasunerako inbertsioak bultzatzeko, eta era guztietako instalazio berriztagarriak garatzen laguntzeko, parke eolikoak eta fotovoltaiakoak, autokontsumorako soluzioak, energia-erkidegoak eta biltegitratze-soluzioak barne.*
- 4. Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2022ko aurrekontuan dagozkion zenbatekoak esleitzeko Gizarte-larrialdiko Laguntzak gauzatzeko.*
- 5. Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2022ko gizarte-larrialdiko laguntzen aginduan neurriak ezartzeko energia-gastuak finantzatzeko muga handitzeko.*

Arespalditzan, 2021-11-04.

Sin. / Fdo.:

*Portavoz municipal de EAJ-PNV
EAJ-PNVren udal-ordezkaría”.*

11.- Behin betiko onestea, bidezkoa bada, Zuhatzako bizitegi-lurzoru urbanizagarriko sektoreko Hitzarmen-batzarraren Estatutuak eta Oinarriak (Zuhatzako Plan Partziala)

Udalbatzari jakinarazi zaio gai honen inguruko 2021eko azaroaren 13ko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio batzordeak hartutako aldeko Irizpena.



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du aurreko bilkuran ez zela gaia landu idazkaritzari txosten bat eskatu zitzaiolako eta ezin izan zelako aurreko bilkuraren deialdirako egin. Orain eztabaidatu eta bozkatu da.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du oraindik zalantzak dituztela, gaia ez dagoela argi eta horregatik abstenitu egingo direla.

Karmele Población (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du elkarri aurka egiten dioten argudio juridikoak daudela; ez dute Administrazio-batzarrak adierazten duenaren aurka egingo, eta, horregatik, aurka bozkatuko dute.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez dela Batzarraren aurka jartzea, egin behar dena egitea dela. Plan Partziala jada onetsita dago, eta ditugun txosten juridikoen arabera ezin dugu ezer egin.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da horren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 EAJ-PNV
AURKAKO BOTOAK: 3 EH BILDU
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2021eko uztailaren 22ko Udalbatzaren erabakia. Horren bidez hasiera batean onetsi ziren Zuhatzako bizitegi lurzoru urbanizagarriko sektoreko Hitzarmen-batzarraren Estatutu eta Oinarrien proiektuak. Horiek Menoyo Gochiren Eraikuntzak 2017 SL enpresaren ordezkariak aurkeztu zituen, arloko gehiengoaren jabeekin batera.

IKUSI DA.- Jakinarazpena jarduketa-eremuko ondasun eta eskubideen titular guztiei jakinarazi zitzaien eta 2021eko abuztuaren 9ko ALHAOn argitaratu zen. Jendaurreko informaziorako epean alegazio bakarra aurkeztu zuen eta hori Zuhatzako Administrazio-batzarraren presidenteara izan zen.

IKUSI DA.- Zuhatzako Administrazio-batzarraren alegazioa. Bertan behin betiko onespena baztertzeko eskatzen du, honako hauen arabera:

- Plan partziala egoitza judizialean inpugnatuta dago, baina Estatutuetan eta Oinarrietan ez da adierazten prozedura judizialik dagoenik. Gauzatuko den hirigintza-plangintzari dagokion auzibitarte hori berariaz aintzat hartu behar da Estatutuetan eta udal-espeditentean, egungo jabeek jakin dezaten egoera zein den eta horrek kudeaketa-tresnak modu jarraian baliogabetu ditzakeela. Gainera, udalerrian plangintza berrikusten ari dira eta eskatu dute Plan Orokor berriak eremu hori deskalifikatzeko. Orain Hitzarmen-batzar bat sortzen saiatzea *ius variandia* gauzatzea ekiditeko saiakera bat da.



- Orain Hitzarmen-batzar bat osatzen saiatzea garaiz kanpokoa da; izan ere, epeak gainditu dira eta Plan Partzian zein HJPa ezarritako garapen-aurreikuspenak iragan dira. Eta lursailek hipotekako hartzekodunak badituzte eta ez badaude guztiz ordainduta, jakinarazi beharko da.
- Hirigintza-hitzarmena sinatu zuen enpresa ez da existitzen eta ez dira bete hirigintzako eginkizun eta betebeharrak. Hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 235.2 artikulua arabera, hirigintzako ez-betetzea da. Gainera, lege horren beraren 171. artikulua arabera, konpromisoak ez betetzeak hitzarmena suntsitzea eragin dezake, lege horren 177 h artikulua ezarritako desjabetze egoeran ere. Ondorioz, ezin da Hitzarmen-batzar bat osatu Plan Partziala gauzatzeko ez-betetze horietarako lege ezarritako erabaki guztiak hartu arte.

IKUSI DA.- 2012ko maiatzaren 17ko udalbatzaren erabakia. Bertan behin betiko onetsi egin zen Zuhatzako bizitegi-lurzoru urbanizagarriko HJPa, hitzarmen-sistemaren bidez, Construcciones Basaorte SL enpresaren jabe bakarrarekiko hitzarmena eta birpartzelatze proiektua.

Hitzarmena Udalarekin sinatu zenean, Construcciones Basaorte SL enpresak egin zuen, lursailen jabe bakarra baitzen. Momentu hartan ez zen beharrezkoa Kontratazio-batzarra osatzea (jabe bakarra zegoelako). Edonola ere, birpartzelatze proiektuan sortutako partzelak hainbat jabe erosi dituzte, eta, ondorioz, aurreko titularraren eskubide eta betebeharrak subrogatu dira.

Plan partziala inpugnatu arren, Estatutuak eta Oinarriak onetsi daitezke, batik bat ez denean eskatu ezta eman ere 1194/2020 ohiko prozeduran. Azken horretan Zuhatzako Administrazio-batzarrak plan partziala inpugnatzen zuen. Gainera, ez da hori gauzatzeko kautelazko neurririk ezarri eta ez da Estatutu edo Oinarrietan jaso beharreko zehaztapen bat. Edonola ere, errekurtoa eremuko jabe guztiei jakinarazi zaie, interesdunak diren heinean; beraz, jabeek plan partziala inpugnatu dela dakite.

Plangintzaren berrikuspen prozesuan ez da inongo oztopoa izango Estatutuak eta Oinarriak onestea, batik bat Plan Orokorra izapidetzen ari denean, hori hasiera batean onetsi baita; halere, ez da onetsi Administrazio-batzarrak eskatutako desklasifikatze eskaera eta plan partzian aurreikusitako hirigintza-agindua mantendu du.

Lursailen ordainketari dagokionez, hori eremuan barne hartutako partzelen jabetzaren erregistroko administrazio-espeditenteko ohar soilek adierazten dute. Gainera, ondasun eta eskubideen jabe guztiei jakinarazi zaie gertatutakoa.

Halaber, hitzarmena eta HJPa 2012ko maiatzean behin betiko onetsi ziren. Epeei dagokionez, aurreikusita zegoen higiezin merkatuaren ziurgabetasun eta ezegonkortasun epeगतik luzatzeko aukera; gainera, ez da inongo legezko agindurik alegatu lursailak erosi dituzten jabe berriek proiektua gauzatzearekin jarraitu ezin izateko.

Hirigintza-hitzarmena sinatu zuen alegazio enpresak aitortu duenez, hitzarmena suntsitu egin da, hirigintza-eginkizunak partzialki bete eta eremua birpartzelatu ondoren, dagozkion hirigintza-lagapenekin. Halere, ez zituen bere eginkizunak guztiz bete, ez delako ezer urbanizatu.



Dena den, ez zaie zehapenik jarri beharko jabe berriei, lursailak ondoren erosi dituztelako, eta ez da hitzarmena suntsitu behar, azpikontratatu ondoren, hirigintza-egiteko horiek beteko direlako eta Oinarri eta Estatutuak aurkeztuko direlako urbanizazioa gauzatzeko.

Amurrioko Jabetza-erregistroa begiratuta, ikusi da gaur egun Menoyo Gochiren Eraikuntzak 2017 SL enpresa ez dela irabazizko aprobetxamenduan ateratako partzelen % 50 baino gehiagokoaren jabe. Beraz, ez du Hitzarmen-batzarra bakarrik osatzeko eskaera egiteko ahalmenik; hori urbanizatzeko-proiektua onetsi baino lehen formalizatu behar da, orain jabe bat baino gehiago dagoelako.

Egungo proposamenak eskatzen du jabeek urbanizazioa mantendu eta zaintzea, Plan Partzialean, HJPan, hitzarmenean eta birpartzelatze-proiektuan adierazitako moduan. Horiek guztiak 2012ko maiatzaren 17ko ohiko bilkuran onetsi ziren. Are gehiago, erabaki honetan gogorarazten zen Plan Partzialaren Ordenantzen 28. artikuluan eskatzen zela jabeek urbanizatzeko-obren gauzatzeko egokia zaindu beharko dutela eta sortutako kalteekiko erantzun beharko dutela 5 urteko epean, entrega gauzatzen denetik. Horrez gain, artikulurik eskatzen du lankidetzara hirigintza-erakunde bat osatzea, urbanizatzekoaren mantentzearen erantzule izateko. Era berean, indarrean dagoen plangintzak eskatzen duen moduan, epe mugagabea mantendu beharko dira Zuhatzako Administrazio-batzarrak onetsitakoak ez diren 17 kale-argiak.

Aurkeztutako zirriborroek 2012ko maiatzaren 17ko Udalbatzaren erabakiaren eta plangintzaren eskakizunak errespetatzen dituzte. Halaber, jendaurreko informaziorako epean ez da alegaziorik egin, hasiera batean onetsitako dokumentuen aurreikuspenaren eskubidearen desegokitasunari dagokionez.

AINTZAT HARTU DA.- Ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 160. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa, baita abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren (Lurzorua eta hiri antolamenduari buruzko arautegiaren legea garatu eta aplikatzeko hirigintza-kudeaketarako arautegia onesten duena) 161. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. eta 68. artikuluetan ezarritakoa.

Udalbatza osoaren gehiengo osoak hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Behin betiko onestea 2021eko martxoaren 25ean aurkeztutako Zuhatzako bizitegi-lurzoru urbanizagarriko sektoreko Hitzarmen-batzarraren Oinarriak eta Estatutuak. Horiek onesteko eskaera aurkeztu zuten Menoyo Gochiren Eraikuntzak 2017 SL enpresaren ordezkariak. Horrez gain, eskaera hori aurkeztu zuten A.J. Larrazabal Santa Coloma jaunak, E. Simón Pérez andreak eta A. Barado Aspizua jaunak, jarduketa-eremuko jabeen gehiengoak direnak. Estatutuak honako hauek dira:

“HITZARMEN-BATZARRAREN ESTATUTUAK, ZUHATZAKO BIZITEGI-LURZORU URBANIZAGARRIAREN SEKTOREKOAK



1. artikulua.- IZENA ETA HELBIDEA

Erakundea Zuhatzako Bizitegi-lurzoru Urbanizagarriaren Sektoreko Hitzarmen-batzarra deituko da eta horren helbidea Amurrioko (Araba) Elexondo kaleko 3 zenbakia izango da.

2. artikulua.- XEDEA, HELBURUAK ETA IZAERA

1.- Eremuaren Birpartzelatze Proiektua eta Hirigintzako Jarduketa Programa onetsi zirenez, Batzarraren xede nagusia izango da Sektoreko Urbanizazio-obrak gauzatzea, baita xede horri lotutako gainerako funtzioak gauzatzea ere. Halere, 2012ko maiatzaren 17an Aiarako Udaleko osoko bilkuran onetsitako eremuko Plan Partzialean, HJPan eta Birpartzelatze-proiektuan jasotako zehaztapenetan adierazitakoaren arabera, jabeek urbanizatzeko obrak behar bezala gauzatzeko erantzukizuna izango dute eta 5 urtez egon daitezkeen akats eta kalteen erantzule izango dira. Horrez gain, Hitzarmen-batzarra, Hirigintza-kudeaketako Araudiaren 25.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, urbanizazioa entregatzean Mantentzerako hirigintza-lankidetzarako erakunde gisa eratu eta osatu beharko da, indarrean dagoen plangintzak adierazten duen moduan. Era berean, erakundeak Udalak urbanizaziorako ezartzen dituen funtzioak eta egitekoak berariaz gauzatu beharko ditu, baita eremuko jabeek ordaindu eta epe mugagabeen Zuhatzako Administrazio-batzarrak onetsitako 17 kale-argiak ez direnak mantentzeko betebeharra ere.

2.- Izaera juridiko-administratiboa du; izan ere, izaera juridikoa du Arabako Foru Aldundian Arabako Hirigintza Intereseke Elkartearen Erregistroan inskribatzen denetik eta xedeak betetzeko erabateko ahalmena du. Aiarako Udalaren administrazio-tutoretzapean jarduten du.

3. artikulua.- IRAUPENA

Hitzarmen-batzarra indarrean egongo da horren xede eta helburua bete arte.

Aurreko artikuluan adierazitako xedeak bete ondoren, Hitzarmen-batzarra Eremua mantendu eta bertan Laguntzeko Hirigintza-erakunde gisa osatu beharko da, urbanizazioa mantentzeko. Indarrean dagoen plangintzaren arabera, berariaz eta nahitaez honako funtzio eta betebeharrak gauzatu beharko ditu; horien artean, eremuko jabeek ordaindu eta epe mugagabeen Zuhatzako Administrazio-batzarrak onetsitako 17 kale-argiak ez direnak mantentzeko betebeharra.

4. artikulua.- BATZARREKO KIDEAK

Batzarreko eskubide osoko kideak izango dira eta Sektorean barne hartutako lursailen jabeen Asanblea Nagusia osatuko dute bertan parte hartzea legez ezarritako moduan izena ematen dutenek, baita Aiarako Udaleko ordezkari batek ere.



Hitzarmen-batzarra osatu eta bertan sartzeko epeak igaro ondoren, ezin izango da kide berririk sartu.

Estatutuak edo atxikitze-eskritura sinatzean, aipatutako eskubide eta eginbeharrak nahitaez onetsiko dira, eta ez badira betetzen ezin izango da adierazi ezagutzen ez zirenik.

Batzarreko kide batek ere ezingo du batzarra utzi, hurrengo paragrafoan adierazitako arrazoia ematen ez bada.

Hitzarmen-batzordearen ohiko funtzionamendua ekiditen duten jabeak badaude, Udalak horiei lursailak desjabetu ahal izango dizkie, hirigintza-egitekoak ez betetzeagatik. Lursail horiek Udalak edo Batzarrak berak hartuko dituzte onuradun gisa, bakoitzari dagozkion kuotetan.

Horrez gain, lursailak jabeek besterendu ahal izango dituzte, transmisio tituluan Batzarraren osaera berariaz adierazi beharko da, baita transmisioa egiten duena bertan sartzan dela ere. Gainera, Estatutuak eta Birpartzelatze Proiektua onesten dituela adierazi beharko du, jada onetsita daudelako. Halere, Batzarreko banakako kide izatea mantenduko da eta ez du lursaila hartzen duen horrek izango Jabetza-erregistroan titulua jasotzen den arte eta Asanblea Nagusiari behar bezala jakinarazi arte.

Edonola ere, lursailak hitzarmenak sortutako betebeharrak eta egitekoak betetzera behartuta egongo dira, etenik gabe.

Batzarreko kideek beren izenean edo beste batek ordezkatuta jardun ahal izango dute. Batzarreko kide ez den ordezkapen iraunkorrek edo eskuordetzeak notario-agiri bidez egingo dira. Batzarreko kideek beste kide batzuetan ordezkapena eskuordetzeko, bilera bakoitzerako egin ahal izango da, Batzarreko idazkariari zuzendutako berariazko ahalordetze-idatziaren bidez, hori eguneko gai-zerrendan jakinarazi ondoren.

Finkaren baten jabetza zatiketa-erregimenean badago, jabekideek ordezkari bakarra izendatu beharko dute. Jabekideek ordezkari hori izendatzeko akordiorik lortzen ez badute, Batzarrak izendatuko du.

Jabetza horizontaleko araubideko jabe elkarte bateko finkaren bat ukituz gero, haren ordezkari izanen da, ondorio guztietarako, batzarburua.

5. artikulua.- ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Batzarreko kide guztiek honako eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

A.- ESKUBIDEAK

1. Beren jabetzakoak diren lursailen gaineko jabari ahalmenez baliatzea, Legeak, indarrean den Hirigintza Plangintzak, Estatutuek eta Batzarraren gobernu-organoek beren eskumenen baitan hartutako erabakietan ezarritako beste mugarik gabe.



2. Lursailak besterentzean, jabe berriak Batzarrean saltzaileak zituen eskubide eta betebeharrak bete beharko ditu.

Transmisioa era fede-emailean jakinarazten ez den bitartean, saltzailea izango da kudeaketa komunak sortzen dituen betebeharrak guztien erantzule.

3. Asanblea Nagusian botoa eta ahotsa izatea.
4. Sektorearen kudeaketarekin zerikusia duten proposamenak eta iradokizunak egitea.
5. Erakundearen kudeaketa eta administrazio-organoetako kideak hautatzea, eta horietarako hautagai izatea.
6. Batzarraren organoen jardueraren berri jasotzea.
7. Esleitzen zaizkion lur-sailaren titulartasuna bereganatzea, eta ordezkoko kalte-ordainak jasotzea, halakorik izanez gero.
8. Estatutu hauetan eta aplikatzekoak diren lege xedapenetan ezarritakoaren arabera dagozkien gainerako eskubideak.

B.- BETEBEHARRAK

1. Gobernu-organismoek finken jabetzari buruz eskatzen dituzten agiri eta titulu guztiak aurkeztea eta horien gaineko egoera juridiko, erreal edo pertsonalak adieraztea.
2. Batzarrari jabetzan eragina izan dezaketen gorabehera guztien berri ematea, eta Batzarrari ekarritako bere jabetzako lurren jabari titulartasuna eta erregistro egoera arautzea.
3. Ohiko edo ezohiko asanbladetan parte hartzea, bereziki “quorum” jakin bat behar izateagatik beharrezkoa denean.
4. Biltzarraren organismoek hartzen dituzten erabakiak betetzea, jar daitezkeen errekurtsoen kalterik gabe.
5. Urbanizazio-obrak egiteko dagozkion kuota edo kopuruak ordaintzea, adierazitako epeetan.
6. Eskubideak edo horien zati bat eskualdatzeko asmoaren berri ematea Batzarrari, hilabete bateko aurrerapenarekin.
7. Urbanizazio-obrak egiteko eta material eta instalazio osagarriak uzteko finkak okupatzen uztea.



8. Batzarrean sartzerakoan, jakinarazpenetarako helbide bat ematea.
9. Urbanizazio-obrak Udalarari eman ondoren, horretarako eratzen den urbanizazioaren Mantentzerako Hirigintzako Erakunde-laguntzailean sartzea, Udalak xedatzen duen moduan.
10. Hitzarmen-batzarra Mantentze-erakunde bihurtu ondoren, urbanizazioa mantentzeko betebeharrak erantzuteko jabeak ordaindu beharreko kuotak edo kopuruak ordaintzea, Erakundeak horretarako ezarritako epeetan.
11. Estatutu hauen, Hirigintzako Legediaren eta plangintza-preskripzioen arabera dagozkion betebeharrak gauzatzea.

6. artikulua.- GOBERNU-ORGANOAK

Hitzarmen-batzarra honako organo hauen bidez zuzenduko da:

- 1.- Asanblea Nagusia.
- 2.- Presidentea.
- 3.- Idazkaria.

7. artikulua.- ASANBLEA NAGUSIA

Asanblea Nagusiak bere gain hartuko ditu Batzarraren eskumenak, honako artikuluko honen arabera presidenteari esleitutakoak izan ezik.

Asanblea Hitzarmen-batzarreko kide guztiek osatuko dute. Presidentea eta idazkaria Batzarrekoak izango dira.

Batzar Nagusiari honako ahalmen hauek dagozkio:

1. Eremurako osatuko den Hirigintza-proiektuaren idazketa kontratatzea, eta, bidezkoa bada, onestea.
2. Estatutuak aldatzea proposatzea, ondoren Udalak onets ditzan, bidezkoa bada.
3. Erabateko eskumen xedatzailea duen fiduziario gisa jardutea, Batzarreko kide direnen ondasun eta eskubideen gainean, edozein motatako jabetza-ekitaldiak adosteko.
4. Batzarrak berezko dituen ondasunen erabateko boterea izatea.
5. Sektorako urbanizazio-obren baitako mantentze-lanak egikaritze-lehentasuna zehaztea.
6. Aurrekontu arrunt eta bereziak onestea, baita inbertsioei dagozkienak ere.



7. Jabeek ordaindu beharreko derramak, kuotak eta ekarpenak onestea, baita horiek ordaintzeko epeak eta baldintzak ere.
8. Batzarreko kideei parte-hartze kuotak ezartzea, eremuaren birpartzelatzean sortzen diren parte-hartze kuoten arabera.
9. Urbanizazio-enpresak sartzearen eta horren osagarri izango diren urbanizazio-sozietateak osatzearen inguruko erabakiak hartzea, baita urbanizazio-obrak esleitu eta kontratatzearen zein dagozkion ekintzen kontratazioaren ingurukoak ere.
10. Erakundeak bere gain hartutako betebeharrak gauzatzen dituela bermatzeko, hirigintza-organismoek exijitu ditzaketen bermeak osatzea adostea.
11. Behar diren kontratu eta konpromisoak onestea, indarrean dagoen hirigintza-plangintzaren arabera Sektorea mantentzeko.
12. Sektoreko lursailen urbanizazio-obrak egiteko beharrezko kredituak hartzea, hipoteka-bermearekin ere.
13. Batzarraren presidentea eta idazkaria izendatu eta bereiztea, eta horien funtzioak eta ordainsariak finkatu.
14. Batzarra ezabatzea proposatzea.

8. artikulua- PRESIDENTEA

Kargu hori Hitzarmen-batzarrean kuotaren gehiengoak aukeratua izan den kidea izango da. Karguaren iraupena biurteko epea izango da eta berrautapen mugagabea egon daiteke.

Batzarra ordezkatzeko du hirugarrenekin dituzten harreman guztietan eta Asanblearen saioak deitu eta zuzenduko ditu.

Honako hauek izango dira presidentearen eskuduntzak:

1. Kide anitzeko organoen deliberazioak deitzea, buru izatea eta zuzentzea, eta berdinketak kalitateko botoarekin ebaztea.
2. Batzarra ordezkatzeko adostutako edozein negozio juridiko motatan, hirugarrenei boterea eta aginduak eman diezazkioke ordezkatzeko hori egiteko, arlo judizialean zein estrajudizialean.
3. Urteko aurrekontua egitea eta Asanblea Nagusiak erabaki behar dituen memoria eta ekitaldi ekonomiko bakoitzari dagozkion kontuak formalizatzea.
4. Batzarraren funtsak administratzea, Asanblea Nagusiak erabakitakoarekin bat etorruta.



5. Hirigintza-eskumena duten organoei jakinaraztea haien aurrean eragina izan behar duten erabakiak.
6. Hitzarmen-batzarraren izenean kontu korronteak irekitzea, ixtea eta administratzea edozein finantza-erakundetan.
7. Berez karguari atxikita dauden edo Asanbleak eskuordetzen dizkion funtzio guztiak.

Presidentearen hutsa, abstinentzia edo gaixotasuna badago, horri dagozkion eskumen guztiak Asanbleak horretarako esleitzen duen Batzarreko kideak hartuko ditu bere gain.

9. artikulua.- IDAZKARIA ETA DIRUZAINA

Batzarrak idazkari bat izendatuko du eta funtzio nagusia Asanbleako aktak idaztea eta zaintzea izango da eta erabakiak egikaritzea, baita Batzarrak edo presidenteak agintzen dioten beste edozer ere, hala nola erabakiak egiaztatzea eta ziurtagiriak igortzea.

Batzarrak diruzain-kontulari bat ere izenda dezake, Batzarraren kontabilitateaz arduratuko dena, baita fakturazioez eta Batzarraren gainerako alderdi ekonomikoez ere; eskumenak izan ditzake Batzarraren kontuetatik kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Idazkariaren eta diruzainaren izendapena Batzarrekoak ez diren pertsonak egin dezakete eta hori egiteagatik ordainduko zaie. Kasu horretan, izendapena zein horren ordainketa Batzarrak kuotaren gehiengoaren bidez ezarriko du.

10. artikulua.- ASANBLEAREN FUNTZIONAMENDUA

Asanblea Nagusia ohiko moduan urtean behin bilduko da kudeaketa- eta ekonomia-memoria, eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua onesteko. Modu ezohikoan ere bildu daiteke presidenteak hala erabakita, edo Hitzarmen-batzarreko edozein kidek hala eskatuta, parte-hartze kuoten ehuneko hogeita hamabosteko -gutxienez- ordezkaritza badu. Halaber, edozein momentutan ezohiko saio bat egin daiteke, aurretiazko deialdirik gabe, jabe guztiak bertan badaude eta ados badaude.

Asanblea Nagusia Hitzarmen-batzarreko idazkariak deituko du, presidenteak hala aginduta. Deialdian bileraren lehenengo deialdiaren data, ordua eta tokia, edo, bidezkoa bada, bigarren deialdikoa adieraziko ditu, eta eguneko gai-zerrenda izango du landu beharreko kontuekin. Batzarreko kideei deialdiak banakako zitazioen igorpen bidez egingo zaizkie, gutun ziurtatu bidez edo mezu elektronikoa bidez; sei egun lehenago bidaliko dira, ohiko zein ezohiko saioa bada ere.

Asanblea Nagusia lehenengo deialdian balioz eratuta geldituko da bertara agertzen badira, haien kabuz edo ordezkatuta, gutxienez kuoten hirurogei ordezkatzeko duten



Hitzarmen-batzarreko kideak. Bigarren deialdian, lehenengo deialditik hogeita hamar minutu igaro ondoren, balioz erabakia egongo da bertaratutako kopurua edozein dela ere.

Saioetan presidentea izango da burua, edo estatutuen arabera ordezkatzeko duena, zeinak eztabaidak zuzendu eta antolatuko dituen.

Parte-hartzeko kuotak Birpartzelatze-proiektuan erabakitakoak izango dira, esleitutako aprobetxamenduaren arabera.

Asanblearen erabakiak, orokorrean, aurkeztutako parte-hartze kuoten gehiengo soilaren bidez hartuko dira.

Berdinketak hurrenez hurren honako arau hauetara jota erabakiko dira:

1. Kuoten berdinketa badago, kideen gehiengoak erabakiko du.
2. Berdinketak jarraitzen badu, presidentearen kalitateko botoak erabakiko du.

Estatutu horiek aldatzeko onepenak kuoten gehiengo osoaren aldeko boto behar du.

Ez balitz gehiengorik lortuko kideak bertaratu ez direlako, beste deialdi bat egingo da soilik Proiektua onesteko, Batzarreko kideei berariazko errekerimendua egingo zaie. Bigarren deialdi horretan ez balitz posible gehiengoa lortzea, kideak bertaratu ez direlako, Batzarrak gehiengo soil bidez erabakiko du.

Asanblearen saio bakoitzeko akta idazkariak idatziko du, zeina bilera horretan bertan onetsiko den, hartutako erabakiak eta egindako bozketen emaitzak jasoko dira. Aktak behar moduan egindako dagokion liburuan egongo dira eta presidentek eta idazkariak sinatuko dituzte. Batzarreko edo Udaleko kideek hala eskatuta, idazkariak -presidentearen oniritziarekin- akta-liburuaren edukiaren ziurtagiriak igorriko ditu.

11. artikulua- KUDEAKETA EKONOMIKOA

Finantza-baliabideak kideek egindako ekarpenek eta hitzartzen diren kredituek osatuko dituzte, legez lortzen den beste baliabideen kalterik izan gabe.

Ordinarazteko eta erregimen juridikorako, Batzarreko gastuak honako modu honetan sailkatzen dira:

- a) Kudeaketa-gastuak: Batzarraren ohiko funtzionamendura bideratuta. Zenbatekoa Asanbleak urteko aurrekontuan onetsitakoa izango da. Aldizkako ohiko kuotetan ordainduko dira.
- b) Hirigintza-gastuak: izaera horretako gastuak ordaintzera bideratuta.

Hirigintza gordetzeko eta mantentzeko gastuak: Hitzarmen-batzarra Mantentzerako Hirigintzako Erakunde Laguntzaile bihurtzen denean, Udalak ezartzen dituen baldintzen arabera



hirigintza mantentzeko eta gordetzeko kostuak ordaintzeko bideratuta. Eremuko jabeek ordaindu eta epe mugagabeen Zuhatzako Administrazio-batzarrak onetsitako 17 kale-argiak ez direnak mantentzeko betebeharra.

Gastuak Birpartzelatze-proiektutik irteten den kuotaren arabera, kideen artean hainbanatuko da, eta ordainarazteko borondatezko epean ez bada ordaintzen, Asanbleak honako hau erabaki dezake:

- Premiamendu-bidetik Udalari ordainarazteko eskatzea.
- Lurrak desjabetzea.

12. artikulua- ARAUBIDE JURIDIKOA

a) Baliabideak.

Asanblearen erabakien kontra aldeko botoa eman ez duten kideek Udalaren aurrean gora jotzeko errekurtsioa jar dezakete, hilabeteko epean, erabakia hartu eta hurrengotik zenbatzen hasita. Berariaz horren berri eman ez bazaie ere, baina helegilea aurretiaz deituta egon ondoren.

Helegitea jartzeak ez du ekidingo erabaki hori egikaritzea, Asanblearen erabaki guztiak berehala egikaritzekoak direlako, Administrazioak edo Epaitegiek egikaritze hori bertan behera uzten badute izan ezik.

b) Interdiktuak.

Batzordeko kideek ezin izango dute Asanbleako edo Batzarreko ebazpenen edo jarduketan kontra interdikturik sustatu, haien fiduzia- edo xedapen-eskumenak erabilita, edo Udalak adostutako desjabetzearen onuradun gisa jarduten dutenean.

Jarduketan muga berbera aplikatuko da hirigintza-obren egikaritzea dela-eta lursailen okupazio oso edo partzialerako ere.

13. artikulua- DESEGITEA ETA GERORA LIKIDATZEA ETA KONTSERBAZIO-ENTITATE BIHURTZEA

Urbanizazioaren mantentzea eta kontserbazioa bere gain hartzeko Mantentzerako Hirigintzako Erakunde Laguntzaile bihurtu ondoren, Batzarra desegin egingo da; betiere hartutako hirigintza-betebeharrak eta erantzukizun subsidiarioak bete badira.

Hala, Mantentze-erakunde Hitzarmen-batzarraren eraldaketaren ondorioz jaioko da, zuzkiduren eta zerbitzuen hirigintza- eta mantentze-obren kontserbazioa aurrera eramateko HKEren 25.2 artikuluan jasotakoaren arabera. Mantentze-erakundea eratzeko aurretiaz Aiarako Udalak estatutu berriak onetsi behar ditu; bertan ezarriko dira Erakundeak bere gain hartu behar



dituen determinazioak, funtzioak eta betebeharrak, hala nola Zuhatzako Administrazio-batzarrak onetsitako 17 kale-argiak baino gehiago diren kale-argiak esparruko jabeek haien kontura eta denbora zehaztugabea mantentzeko eta kontserbatzeko betebeharra.

Hitzarmen-batzarra Mantentzerako Hirigintzako Erakunde Laguntzaile bihurtu ondoren, Batzarra desegin egingo da eta presidenteak likidatu egingo du, Asanbleak horretarako adostutako argibideen behaketarekin. Desegiten denean, Batzarreko kideek bere gain hartuko dituzte. Mantentzerako Hirigintzako Erakunde sartzetik eta bihurtzetik eratorritako betebeharrak eta funtzioak.

14. artikulua- ITUNTZE-BATZARRAREN ERANTZUKIZUNA

Batzarra Udalaren aurrean Estatutu horietatik eratorritako betebeharren erantzule zuzena izango da, baita indarreko hirigintza-plangintzarena eta -legediarena ere, eta oso zehazki Sektorearen hirigintza osoaren egikaritzarena; bai obraren ezaugarri teknikoak eragiten dionean, bai obra amaitu beharreko epea eta Udal-administrazioari emateko epeari dagokionean. Zentzu horretan, arloko jabeek hirigintza-obraren egikaritze zuzenaren eta kalteen aurrean erantzun behar dute 5 urteko epean, hirigintza ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Batzarrak eragina dezake arau-hausleei edo arau-haustetik onura lortu duten pertsonen dagokionez, jarduketan ondorioz ezarritako isunen zenbatekoan eta kideen hutsegitean.

Kideei jarritako isunen ondorioak eraginkorrak izan daitezkeen, Batzarrek Administrazioari premiamendu-bidetik diru-bilketa eska diezaioke.

ZUHATZAKO BIZITOKIRAKO LURZORU URBANIZAGARRIKO SEKTOREKO ITUNTZE-BATZARRAREN OINARRIAK

I. oinarria- Lurralde-esparrua. Lurralde-jarduketako esparrua honako hau da: Ituntze-Hitzarmenean eta Birpartzelatze-proiektuan, HJPan, Plan Partzialean zehaztutako Zuhatzako Bizitokirako Lurzoru Urbanizagarriaren Sektorearen barruko lursailak; Aiarako Udalaren 2012ko maiatzaren 17ko osoko bilkuran onetsi ziren.

II. oinarria- Xedea. Aintzat hartu behar da esparrua dagoeneko behar bezala birpartzelatuta dagoela; horrenbestez, Oinarri hauen xedea izango da urbanizatzea egikaritzea eta batzarraren zeren likidazioa arautzea, gerora urbanizazioaren Mantentzerako Hirigintzako Erakunde Laguntzaile bihurtzeko, (HKEren 25.2 art.), Aiarako Udalaren gainbegirada eta fiskalizazio pean, hirigintza-zuzkidurara bideratutako lursailen Hirigintza-administrazio jardule eta hartzaileari dagokionez.

III. oinarria- Derrigortzeko indarra. Udalak Jarduketa-oinarriak eta lursailen jabeak Hitzarmen-batzarrean sartzea onesteak esan nahi du batzarreko kideek bete beharreko arau gisa onesten dituztela oinarrietan onetsi ziren moduan. Oinarri horiek derrigorrezkoak izateak ez du esan nahi aldatu ezin direnik; Asanblea Nagusian onetsi behar dira gutxienez parte-hartze kuoten



ehuneko hirurogeia ordezkaten duten kideen bidez, eta izapidetzea hasierakoen moduan egingo da.

IV oinarria.- Interesdunak. Jarduketa-oinarri horiek eta Hitzarmen-batzarreko Estatutuak behin betiko onesten direnean, jakinarazpenaren izapideen eta udal-ordezkariaren esleipenaren ondoren, sektoreko lursailak jarduketara lotuta geldituko dira eta jabeek eskritura publiko bidez Hitzarmen-batzarra eratu behar dute. Batzarraren parte izango dira jabe sustatzaileak, Estatutuen arabera batzen direnak, eta bidezkoa bada, hirigintzan jabeekin parte hartu behar duen hirigintza-enpresa, estatutuekin bat etorrita Asanblea Nagusiak zehazten dituen baldintzetan.

V. oinarria- Bere gain hartzen dituen jarduketak. Esparruko hirigintza-jarduketak honako hau hartzen du bere gain:

1. Udalari dohainik eman zaizkio lurzoruen nahitaezko lagapenenen eta jabeek haien kontura egikaritu behar dituzten obra eta instalazioen jabari osoa eta kargarik gabea, garapenaren plangintzaren eta aplikatzeko araudiaren arabera.
2. Esparruko jabeek hirigintza-obren eta esparruko hirigintza-egikaritzeari dagozkion gainerako gastuen finantzazioa eta ordainketa egingo dute, esparruko hirigintza-kudeaketaren tresnen eta hirigintza-proiektuen ondorioen arabera.
3. Hitzarmen-batzarra Mantentzerako Hirigintzako Erakunde Laguntzaile bihurtu denean, urbanizazioa kontserbatzeko eta mantentzeko lanak esparruko jabeek finantzatu eta ordainduko dituzte. Udalari ematen zaionean, Aiarako Udalak ezarritako baldintzen arabera, eta bere gain hartuko du besteak beste Zuhatzako Administrazio-batzarrak onetsitako 17 kale-argiak baino gehiago diren kale-argiak esparruko jabeek haien kontura eta denbora zehaztugabea mantentzeko eta kontserbatzeko betebeharra.

VI. oinarria- Betebeharrak ez betetzeagatik desjabetzea. Bidezko zigor gisa adostu daiteke lursailak desjabetzea, estatutuetan jasotako betebeharrak orokorrak eta Asanblea Nagusiak eta Udalak ezarritakoak betetzen ez dituzten kideei, edo Asanbleak onetsitako kuotak ordaintzen ez dituztenei. Desjabetzea egiteko aplikagarria izango da desjabetzeko legeriaren prozedura orokorra, Udala izango da desjabetzailea eta Hitzarmen-batzarrak onuradun izaera izango du.

VII. oinarria- Ondoriozko finketan lehendik dauden elementuak. Eraikuntzak, obrak, plantazioak, instalazioak eta ondoriozko finketan lehendik zeuden elementuak eraitsi egingo dira, jabeen kontura, ezabatzea beharrezkoa denean Plangintzan aurreikusitako hirigintza-obrak egiteko eta horiek kontserbatzea ez denean inolaz ere bateragarria antolamenduarekin, behin-behineko erabilerarako bada ere.

VIII. oinarria- Hirigintza-obren kontratazioa. Hirigintza-obren egikaritzea -osorik edo zati bat- Batzarrera lotutako hirigintza-enpresek egin dezakete, edo Asanblea Nagusiaren erabaki bidezko adjudikazioaren bidez, Udalak onetsitako Hirigintza-proiektuari epean eta egikaritze-moduan egokitzeko aitortutako kaudimena duten obra-kontratisten enpresa edo enpresek. Udalari obren inguruan ikuskatzea erraztuko diete.



Edonola ere, Hitzarmen-batzarrak hirigintza-obrak kontratatzea Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 172. artikuluan jasotakoaren arabera egingo du: kontratu publikoei buruzko legeriaren printzipioak bete beharko dira lizitatzailen kaudimenari dagokionez eta publizitateari eta lehiari dagokionez.

IX. oinarria- Egindako obraren kontura Batzarrak kopuruak ordaintzea. Obrak ordaintzeko obren zuzendaritza fakultatiboaren ziurtagiriaren kontra egingo da, Asanblearen erabaki bidez hirigintza-obren kontura ordainketak egiteko kalterik gabe. Batzarrak ordainketa partzial bakoitzari atxikipenak egin ahalko dizkio, obrak egikaritzearen berme gisa, atxikimendu horiek ez dira itzuliko obrak behin betiko jaso arte.

X. oinarria- Kuotak ordaintzeko epeak eta modua. Estatutuen arabera jabeek eskatzen zaizkien ohiko eta ezohiko kuotak, eta gainerako ordainparteak eta ekarpenak Asanblea Nagusiak onetsiko ditu eta jabeek Hitzarmen-batzarrak horretarako ezartzen duen epean ordaindu behar dituzte. Epe horiek igarotzen badira ordaindu gabe, horretarako esatutu-aurreikuspenak aplikatuko dira, Udalaren bidez premiamendu-bidez ordainaraztea ere.

Jabeek ordaindu beharreko kuota eta ordainpartean exigentzia-erregimen juridikoa, onesteko modua, eta premiamendu bidez ordaintzea eta ordainaraztea berbera izango da, eta Hitzarmen-batzarra Mantentzerako Hirigintzako Erakunde Laguntzaile bihurtzen denean, urbanizazioa kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak ordaintzeko jabeek bere gain hatu behar dituzten kuotei aplikagarria izango da. Dena den, bihurtu baino lehenago, Aiarako Udalak Mantentze-erakunde hori arautuko duten Estatutuak onetsi behar ditu.

XI. oinarria- Lursailak besterentzea. Lursailak “inter vivos” edo “mortis causa” bidez eskuratzen dituen lursailaren hasierako titularri egokituko litzaizkiokeen eskubide eta betebeharrak guztietatik subrogatuta geldituko da Hitzarmen-batzarrari dagokionean.

XII. oinarria- Hitzarmen-batzarraren erantzukizuna. Hitzarmen-batzarra Aiarako Udalaren aurrean esparruaren urbanizazio osoaren erantzule zuzena izango da; bai, obraren ezaugarri teknikoak dagokienez; bai, egikaritze-epetari eta Administrazioari transmititzeari dagokionean. Urbanizazio faltaren kasuan, Udalak nahitaezko betearazpena eta premiamendu-bidea erabil ditzake; hala ere, Batzarrak isunen zenbatekoan eragin dezake, arau-haustean eragin zuzena izan duten kideengan.

XIII. oinarria- Lursailen benetako afekzioa. Aplikatzeko hirigintza-araudian aurreikusitakoaren arabera, birpartzelatzean eratorritako finkek -benetako- hirigintza-kostuen ordainketaren eragina izango dute dagokien proportzioan.

XIV. oinarria- Urbanizazioa kontserbatzea eta Mantentze-erakundea eratzea. Udalari urbanizazioa eta esparruko jabeek hirigintza-obren egikaritze zuzenari buruz eta kalteei buruz erantzuteko betebeharra ematen zaionean, 5 urteko epean urbanizazioa ematen denetik, Hitzarmen-batzarra, HKEren 25.2 artikulua arabera, Mantentzerako Hirigintzako Erakunde Laguntzaile bihurtu eta eratu behar da. Urbanizazioaren mantentzearen eta kontserbatzearen aurrean erantzun behar du, indarreko plangintzan jasotzen den moduan, Udalak ezarritako baldintzen arabera, eta bere gain hartuko du besteak beste Zuhatzako Administrazio-batzarrak



onetsitako 17 kale-argiak baino gehiago diren kale-argiak esparruko jabeek haien kontura eta denbora zehaztugabeen mantentzeko eta kontserbatzeko betebeharra. Mantentzerako kuotak ordaintzeko X. oinarrian jasotakoa aplikatuko da, eta, bidezkoa bada, Udalak Mantentze-erakunde hori arautzeko onetsiko dituen Estatutuak.

Urbanizazio-obren eta instalazioen lagapena, egikaritzea aurreikusita dutenak, Udalaren alde egingo da Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 198. artikuluan legez aurreikusitako moduan, bidezkoa bada, 7. atalean honako hau jasotzen da: Arabako udalerrietan, eragindako kontzejuek onetsi behar dutenean urbanizazioa, udalak kontzejuekin hitzartuko du eskualdatzeko modua. Urbanizazioa kontserbatzeko eta mantentzeko eginbeharrak ere sartuko ditu hitzarmen horretan.

XV. oinarria- Orubea eraikitzea. Orubeak eraikitzea aplikatzeko udal-plangintzan jasotako hirigintza-determinazioen arabera egingo da, baita Aiarako Udalak horretarako emango lituzkeen baldintza eta hirigintza-lizentzien arabera”.

Bigarrena.- Gentza Alamillo Udaeta jauna, alkate gisa, edo momentu bakoitzean legez ordezkatzeko duen pertsona, Zuhatzako Bizitokirako Lurzoru Urbanizagarriko Sektoreko Hitzarmen-batzarrean Aiarako Udalaren ordezkari izendatzea.

Interesdunei gogoraraztea Hitzarmen-batzarrean eratu behar dutela, eskritura publiko bidez, egikaritze-unitatearen ondasun eta eskubideen titular guztiei banaka eta modu fede-emailean jakinarazi behar zaie, hilabeteko epea emango zaie horretara atxikitzeko, eta dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzea. Helburua da, behin lege-baldintzak betetzen direnean, Hitzarmen-batzarrearen eraketa onesteko eskatzea, udal honen partetik eta Arabako Foru Aldundiaren partetik Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan sartzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau egikaritze-guneak kaltetutako ondasunen eta eskubideen titular guztiei eta espedientearen agertzen diren guztiei jakinaraztea, horien artean Zuhatzako Administrazio-batzarra. Adieraziko zaio horren aurrean (jakinarazten denetik hilabeteko epean udal honen aurrean, bidezkoa bada, aukerako berraztertzeko errekurtsioa baino lehen) administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezaketela dagokion Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotzen duten hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Eta Oinarri eta Estatutuen behin betiko onespeneraren erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

12.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta “Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua” elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena Euskararen Egun Bateratua 2021 ospatzeko, zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen den

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoientzat, eguneko gai-zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez



dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai-zerrendan sartzea berresten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaraturako udalkide guztiek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10) osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hitza hartu du hitzarmenaren eta horren edukiaren kontu emateko.

Karmele Población (EH-BILDU) zinegotzi andreak hitza hartu du esateko hitzarmenarekin eta euskararen sustapenaren ekimenarekin ados daudela. Hala ere, gauza asko daude egiteko euskararen sustapenerako eta hizkuntza-paisaia aldatzeko, adibidez, udaletxeko lan-eremuan; izan ere, denon artean ahalegina egin daiteke euskara gehiago egoteko.

Ez denez gaiaren inguruko ezer gehiagorik esan, Akta aho batez onetsi dute bertaraturakoek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak arlo guztietan (ludikoa barne) euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko interesa.

IKUSI DA.- Eskualde mailan euskararen eguna ospatzeko Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, zeinaren bidez dirulaguntza zuzena ematen den.

IKUSI DA.- 2021eko azaroaren 9ko Euskara eta Hezkuntza Informazio-Batzordearen aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen horrek Aiarako Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkarteari emango dion dirulaguntza zuzena arautzen du eta 2021eko udal-aurrekontuan badagoela aurrekontu-aplikazio izenduna kreditu nahiko eta egokiarekin; hitzarmen hori sinatzeak Udalarentzat dakarren gastua bere gain hartzeko.

Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10) honako **ERABAKI** hau hartu du:

LEHENENGOA.- Onestea Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, eskualde mailan euskararen eguna ospatzeko; 2.000 euroko dirulaguntza zuzena emango da eta testuak honako hau dio:



AIARAKO UDALAREN ETA
“AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA”
ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA
2021eko EUSKARAREN EGUN BATERATUA OSPATZEKO

Arespalditzan, 2021eko azaroaren xxxxxxxxxxxx(e)(a)n

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, Aiarako Udaleko Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jauna (NAN-zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko Naiara Lazpita Marcos andrearen (NAN-zk.: 45.676.325-G) laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Bestetik, Aitor Fernández de Pinedo (NAN-zk.: 30.607.335-Q), Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren (elkartearen helbidea: Etxegoien Bidea 8, 01470 Amurrio) presidentea, erakunde horren izenean (IFK-zk.: G01545599).

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde horren izenean eta haren ordezkari gisa, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren izenean eta haren ordezkari gisa, IFK-zk.: Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu bere izaera eta ordezkaritza, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen presidente izendatzen duen aktaren fotokopiaren bidez (hitzarmen honetan 1. eranskin gisa erantsi da).

Bi aldeek elkarri aitortu diote erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzeta-hitzarmen hau egin eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I.- Aiarako Udalak esparru guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko duen udalerriko interes publikoari erantzuteko, besteak beste honako ekimen hauen bidez jardungo du:

- *Erabilera-aukerak sortzea aisialdian, kultura-eskaintzan, kirolean...*
- *Euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea, euskara ikasten ari diren pertsonen zuzenduta*



- *Euskara ez dakiten pertsonak ikas dezaten eta erabilera aukerak areagotzeko erraztasun gehiago sortzea*
- *Egokiak izan daitezkeen bestelako ekimenak.*

II.- Aiarako Udala udalerrian euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko asmoz, sustapen hori –beste ekimen batzuen artean– Hitzarmen honen bidez egingo du, zeinak 2021eko Euskararen Egun Bateratua garatzeko (2021eko abenduaren 4an Luiaondon) Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari emango zaion dirulaguntza arautzen duen.

III.- “Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua” Aiaraldeko eskualde-elkartea da, eta udalerriz guztietan jarduten du, eta beraz, Aiarako herritar guztiei eta Aiarako udalerriko elkartei irekita dago; helburua euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea da.

IV.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren fundazioak erakutsi du interes handia duela Aiarako Udalarekin euskararen sustapenarekin lotutako jarduerak antolatzeko lankidetzan aritzeko; horren adierazlea da Luiaondon 2021eko abenduaren 4an egingo den Euskararen Egun Bateratua 2021.

V.- Aplikatzeko legedia zorrotz beteta eta Lankidetzaren hitzarmena sinatzeko Tokiko Erakundeak laguntzen dituen gaitasuna kontuan hartuta, bi alderdiek Lankidetzaren hitzarmen hau formalizatuko dute. Honako akordio hauek beteko dituzte:

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak euskara sustatzeko Euskararen Egun Bateratua 2021 ekimena sustatzea. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen lankidetzaren eta koordinazioaren bidez.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen bidez Aiarako Udalak garatuko duen sustapen jardueran 2.000 euroko dirulaguntza ematean datza, Euskararen Egun Bateratua 2021 jardueraren gastuen zati bat ordaintzeko, zeina Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkarteak Luiaondon 2021eko abenduaren 4an antolatuko duen. COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean, osasun-agintariek horretarako igortzen dituzten jarraibideak aintzat hartu eta aplikatuko dira.

HIRUGARRENA.- Aiarako Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua diruz lagunduko du (2.000,00 euro), Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Euskararen Egun Bateratua 2021 antolatzeak sortzen dituen gastuen zati bat ordain dezan.

LAUGARRENA.- Diruz lagunduko den jardueraren egikaritzeko epea 2021eko abenduaren 4a izango da.

BOSGARRENA.- JUSTIFIKAZIOA. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen Udaleko Erregistro orokorrean honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:



19:23ak direla Susana Martín Benavides zinegotzi andrea osoko bilkura honetara sartu da.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai-zerrendan sartzea berresten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea.

Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du esateko izapidetzen ari den legeak tokiko esparruan autonomiaren kontrako eraso larria egiten duela; izan ere, Eusko Jaurlaritzak interes publikoko proiektu gisa adierazitako proiektuak udalen hirigintza-araudiei gailenduko zaizkie, hortaz, herriari ahotsa eta udalei eskumenak kentzen ari zaizkie.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du esateko lege horrek ez diola eragiten Aiarako Hiri-antolamenduko Plan Orokorrari, Aldundia bera delako behin betiko onetsiko duena. Gaineratu du bere taldeak kontrako botoa emango duela, alternatiba bat aurkeztu dutelako.

Ez dagoenez horren inguruko iruzkinik, gaia bozkatu egin da. Honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 3 EH BILDU
AURKAKO BOTOAK: 7 EAJ-PNV
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Horrenbestez, aurkeztutako mozioa aho batez baztertu da.

14.- Alkateak 8/2021 Kreditu Gehigarriaren Espedientearen eta idazkari kontu-hartzailearen Aurrekontu-egonkortasuna betetzeko txostenaren kontu ematea

Kontu eman zaie udalkideei Alkatezaren Dekretuaren bidez Kreditu Gehigarriaren 8/2021 Espedientearen idazkari Kontu-hartzailearen txostenari buruz, ez delako betetzen Aurrekontu-egonkortasuna.

Ez dago horren inguruko iruzkinik, beraz, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.



IKUSI DA.- 2020ko likidazioak sortu dituen Gastu Orokorretarako Diruzaintzaren gerakinaren zati bat erabiltzeko beharra, gastu aplikazioak sortzeko saihestezinak diren eta 2022ko aurrekontura itxaron ezin dezaketen ordainketak egiteko.

IKUSI DA.- 2021eko azaroaren 10ean sinatutako Idazkari Kontu-Hartzailearen txostena, gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinarekin gastuak finantzatzeko egonkortasuna betetzeari buruzkoa.

AINTZAT HARTU DA.- Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 eta 7.3 artikulua (17/2014 Foru Arauaren bidez idatzita).

Udalbatza jakinaren gainean geratu da erakunde kontu-hartzailearen txostenari buruz, Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa Diruzaintzako Gerakinaren erabilerari dagokionean. 2021eko azaroaren 10ean sinatu zen, hitzez hitz honako hau dio:

KONTU-HARTZAIETZA TXOSTENA

GAIA: *Gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinean kargurako aurrekontu-aldaketa. Aiarako Udaleko Kontu Hartzailetzako karguari dagozkion eginkizunak oinarri hartuta, eta abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, Arabako toki-erakundearen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoak (17/2014 Foru Arauak aldatua), zeinen bidez gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa bat onetsi ahal izateko Udalbatzari Kontu-hartzailetzaren txosten bat aurkeztu beharko zaion, egonkortasunaren helburua bete ez dela jasota utziz, eta Diruzaintzako Gerakinaren erabileran egindako aldaketak kontuan hartuta, honako txosten hau egin da (bi txosten dauzka):*

- *I. eranskina: Gerakina erabiltzeko proposamena, hainbat kreditu gaitzeko.*
- *II. eranskina: kontu-hartzailetza txostena, Diruzaintzako Gerakinarekin gastuak finantzatzearen bidez egonkortasuna betetzeko.*

I ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA.

DIRUZAINZAREN GERAKINA ESPEDIENTE HAU BAINO LEHENAGO ERABILI GABEKO 2020 LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRETARAKO: 197.664,65 €.

ERABILTZEKO PROPOSAMENA: 9.196,00 €

Honako aurrekontu-aplikazio hauek sortzeko:

PARTIDA	IZENA	ZENBATE KOA/ €
342.623.000	BIZIKLETAK MANTENTZEKO TOKIA	9.196,00 €.



ZENBATEKOA OSOTARA: 9.196,00 €.

**II ERANSKINA: IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA,
EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN ONDORIOETARAKO**

I. TXOSTENAREN OINARRIAK

Abenduaren 13ko Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauaren (17/2014 Foru idatzitako moduan) 7.1 artikulua arabera, aurrekontu egonkortasunaren zein zor publikoaren helburua edo gastu arauarena bete ezean, ekonomia eta finantza plana formulatu beharko du horiek bete ez dituen administrazioak, aribideko urtean edo hurrengoan helburuak eta gastu araua betetzea ahalbidetuko duena.

Horrez gain, Foru Arau horren 7.3 artikulua honako hau adierazten du: Aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako gastuen ondorio bada, ekonomia eta finantza planaren ordezkari kontu hartze zereginak burutzen dituen organoaren txostena aurkeztu beharko zaio dena delako Udalbatzari horren berri emateko, bai eta toki korporazioaren finantza iraunkortasunaren analisia eta ebaluazioa ere, gutxienez honakoak jasoko dituen:

a) Erakundearen zein haren menpeko erakundearen aurrekontu egonkortasunaren helburuak.

b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, joera bilakaera aintzat harturik, hau da, aldaketa onesten ez duten politikak, adibidez, dagokion aldirako aurreikusitako neurrien inpaktua.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.

d) Diruzaintzako gerakinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoera.

e) Bidezkoa bada, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina. Txostena kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.

Udalbatzak egindako bilkuraren akta, kontu hartzeko organoaren txostena eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidaliko dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa. Epe hori pasatu bada eta Arabako Foru Aldundiak esanbidezko ebazpena eman ez badu, espedientea izapidetzen jarraitu ahalko da.

ARLO SUBJEKTIBOA:

Txosten honek aurrekontu-aldaketaren finantzaketak sortutako ezegonkortasun-egoera aztertzea nahi du; txosten hau horren espedientearen barruan dago, eta aldaketa Aiarako Udalaren Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen bidez egin zen.

HELBURUAK:



Diruzaintzaren Gerakinaren bidez proposatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak egonkortasun printzipioa hausten du, baina hauste horrek ez du egitura-izaerarik, egoeraren arabera egitura du.

Horretarako, aurrekontuaren magnitudeak aztertu behar dira, txosten honen helburua honako helburu hauek egiaztatzea delarik:

- *Aurrezki garbi positiboa*
- *Diruzaintzako Gerakin positiboa*
- *Ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa den finkatutako zorraren maila*
- *Superabitaren edo finantzaketa-gaitasunarekin finkatutako aurrekontu-egonkortasuna (KSE baldintzetan)*
- *Gastu-araua betetzea*

Abenduaren 13ko Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauaren (17/2014 FAn idatzitako moduan) 7. artikuluko 3. atalaren arabera, txosten hau honela egituratuko da:

1.- Egungo egoeraren diagnostia: erakundeak aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzea edo ez-betetzea aztertuko da.

*2.- **Gastu eta diru-sarrereren egoerak adieraztea***

*3.- **Inbertsioaren funtzionamenduak eragingo duen talka gastu arruntarengan.***

II. EGUNGO EGOERAREN FINANTZA- ETA EKONOMIA-DIAGNOSIA: AURREKONTU-EGONKORTASUNEN HELBURUAK

Abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernuaren Kontseiluak erabakitakoari erreferentzia egin behar diogu. Horra hor: Arabako toki erakundeen zerga arauak etetea, salbuespenez eta 2020. eta 2021. urteetarako soilik. Horrek esan nahi du ondorioz gabe utzi behar direla aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren alorreko helburuak, eta ez zaiela gastu araua aplikatu behar aipatutako urteetan.

Hala ere, informazio-mailan, 2020 ekitaldiari dagokion onetsitako azkenengo likidazioan lortutako datuen artean, honako hauek azpimarratzen ditugu:

MAGNITUDEA	ZENB ATEKOA	BETETZEA/ EZ BETETZEA
<i>Doitutako aurrezki garbia</i>	<i>467.891,52 €</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Diruzaintzaren soberakina gastu orokorretarako</i>	<i>590.779,40 €</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Aurrekontuaren emaitza</i>	<i>374.781,68 €</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Zorpetze maila</i>	<i>0</i>	
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	<i>350.068,98 €</i>	<i>BETETZEA</i>
<i>Gastu-araua</i>	<i>-307.315,42 €</i>	<i>BETETZEA % -14</i>

III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOERA.



Epe honetarako Finantza Plan Ekonomikoan zenbatekoak erakustea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehazteko, honako EGOERA posible hau ezarri da:

- *Uste dugu ekonomia-mantentzearen egoera dela abiapuntua, baina jarduketan tentuz ibili behar dugu pandemiak operadore ekonomikoak oso egoera ahulean utzi dituelako; Udalak jasoko dituen diru-sarreretan eragina izan dezake, batez ere, FOFELen parte-hartzetik lortutakoak.*
- *Gastuei dagokienez, gai horretan murrizketak mantentzea da abiapuntua, bai langileen gastuetarako, bai bestelako gastuetarako; Estatuko aurrekontu orokorren legeetatik eratorriak,*

Ekitaldi honetan, 2020an bezala, abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernuaren Kontseiluak honakoa erabaki du: Arabako toki erakundeen zerga arauak etetea, salbuespenez eta 2020. eta 2021. urteetarako soilik. Horrek esan nahi du ondoriorik gabe utzi behar direla aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren alorreko helburuak, eta ez zaiela gastu araua aplikatu behar aipatutako urteetan. Hala ere, eta 2021 ekitaldirako indarraldiarekin, Arabako toki erakundeentzako gutxi gorabeherako gehieneko ezegonkortasuneko erreferentziako tasa onestea erabaki da, Kontuen Europako Sistemaren arabera kalkulatuta. Tasa hori bat etorriko da 2021eko Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren likidazioan duten partaidetzaren eta Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 21eko 186/2020 Erabakiaren bidez onetsitako 2020ko ekitaldirako funtsean duten hasierako behin betiko partaidetzaren arteko aldearekin.

MAGNITUDE NAGUSIEN GARAPENA.

Adierazitako ekitaldietan aztertutako magnitudeen eboluzioa, haien likidazioetatik eratorritakoak, honako taula honetan zehazten dira:

HELBURUAK	2019	2020
Aurrekontu-egonkortasuna	305.675,20	350.068,98
Diru-sarreraren % egonkortasuna Ez finantzazkoak	% 12,75	% 14,64
Gastu-araua	20.388,08	-307.315,42
Zorrak	0	0
Doitutako aurrezki garbia	361.604,53	467.891,52
Diru-sarrera ohietako aurrezki garbiaren %	% 15,56	% 19,57
DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA	590.384,93	590.779,40



IV. DIRUZAINZAREN GERAKINA AGORTZEKO MOMENTUAN AURREKONTUEN ETA FINANTZEN EGOERA.

III-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA.

Diruzaintzako gerakinak erakundeak osotara bildutako epe motzeko likidatzea islatzen du, epe zehatz batean, eta hori etorkizunean gastu bat finantzatzeko eskuragarri dago.

Doitutako diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina aurrekontua aplikatzen duten hartzekodunen datuen arabera doitzen da, baita ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzulerekin ere. Horrek, magnitude honetako egoeraren irudi erreala goa ematen digu. Magnitude honek erakundearen epe motzean dugun likidatze erreala ren informazioa ematen digu.

III-C.2 AURREZKI GARBIA.

Aurrezki garbiak Udalak zorpetzeko duen gaitasuna adierazten digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du inongo gaitasunik epe luzerako mailegu berririk hartu ahal izango. Aurrezki garbia positiboa bada, jakinarazten digu epe luzerako mailegu berriak hartzeko gaitasuna dugula. Gainera, zenbatekoa eta ditugun baldintzak ere zehaztu daitezke. Edonola ere, magnitude honek erakundearen zorpetze-gaitasunaren informazio fidelagoa eman dezan, Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa ezohikoak diren eta errepikatzen ez diren diru-sarreraren zenbatekoa ondorioztatzearen bidez egin beharko litzateke.

III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA.

Zor biziak erakusten du erakundearen finantza-kaudimena zein den. Kaudimenaren inguruko arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorio izan daitezke, eta, horren ondorioz, finantza-karga handitu egiten da, gainerako gastu arruntarekin batera. Horregatik, ezinezkoa da erakundearen diru-sarrera arruntek irenstea, aurrezki garbi negatiboa sortzen baitute.

III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.

Aurrekontu-egonkortasunak erakundearen finantza-gaitasunaren/beharraren berri ematen digu. Horrek, zeharka, esan nahi du mugatu egiten dela zorpetzea urtero amortizatzen den kopuruaren gaintetik handitzea (SEC 95 terminoetan kalkulaturak). Erakundeak finantzaketa beharra badu (gastu ez-finantzarioak sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak dira), horrek esan nahi du erakundeak kanpoko finantzaketa (zorpetzea) behar duela bere gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantza-gaitasuna badu (gastu ez-finantzarioak sarrera ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), hori bera erakundearen bere zorpetzea gainditzeko duen zenbatekoari gehituko zaio.

III-C.5 GASTU ARAUA.

Gastu-araua zerga-arau bat da, eta horren bidez, gastu konputagarria mugatu nahi da. Beraz, gastu hori ez da ekonomia-ekitaldi batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehunekoa baino gehiago handituko. Hori eginda, aurrezki publiko handiagoa lortu nahi dugu, diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera ez doan gastuaren hazkundeari muga ezartzearen bidez.

III-D. MAGNITUDEEN GARAPENAREN INGURUKO ONDORIOAK



Gastu eta diru-sarreraren egoeren kapituluen landutako datuen arabera, aintzat hartu da Diruzaintzako Gerakinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketa ez dela erakunde honetzako egiturazko desorekaren arrazoi izango; egoeraren araberakoa izango da eta xedeak urte bateko epean beteko dira berriz, Finantzaketa Plan Ekonomiko bat egin behar gabe.

V. INBERTSIOAK FUNTZIONATZEA ERAGINGO DUEN TALKA OHIKO GASTUAREKIKO

Landutako datuen artean, aintzat hartu da aurrezki garbi positiboa egongo dela. Ondorioz, etorkizunean aldaketa honek finantzatutako duen gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz sor daitekeen ohiko gastua erakunde honetan egondako ohiko diru-sarrerak estali ahal izango dute. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako xedearen azpian ezarri beharko da (ez dago zorpetzerik). Beraz, bi datuak batzean, aurreikusitako daiteke ez dela horren etorkizuneko finantza-egonkortasuna arriskuan jarriko.

Horrez gain, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketek berez ez dutela etorkizuneko ekitaldien ohiko gastuan hazkunde handirik sortuko, bizikletak garbitzeko instalazioaren mantentze txikia.

Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen barnean egongo da.

Osoko bilkurako akta, kontu-hartzailatza organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Tokiko Erakundeez arduratzen den Sailari igorriko zaio, eta hark, 30 eguneko epean, neurri osagarriak hartzeko beharrezkoa den informazio osagarria eskatu ahal izango du. Horien artean aurki daitezke, besteak beste, ekonomia- eta finantza-plana egiteko eskatzea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatze aldera.

Arespalditzan.-

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.: - Naiara Lazpita Marcos.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.

15.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.

Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaizkio 2021/593 eta 2021/668 bitarteko Alkatetza Dekretuak, aipatutako bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/593.- Pilbacken SL.- ... hondakinak behar bezala kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/594.- Belako Lanak SL.- Bideen garbiketa mekanikoaren zerbitzua adjudikatzea (2. igarotze partziala).

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/595.- R.P.T.- Udaltzari jakinarazi zaizkio 2021/593 eta 2021/668 bitarteko Alkatetza Dekretuak, aipatutako bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/596.- EDP Clientes SAU.- 3/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/597.- Baser Comercializadora de Ref. SA.- 3/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/598.- Total Energies Clientes SAU.- 3/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/599.- JL.B.G.- Izoriako etxebizitzan sarrera zolatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/600.- ISS FACILITY SERVICES SA.- Covid-19agatik ezohiko garbiketa zerbitzuaren kontratua aldatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/601.- Elkarkidetza Pentsioak.- Likidazio-faktura onestea, 2021eko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/602.- JA.A.E. Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta 2020ko TMIZren ordainagiriaren parte itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/603.- Ados Sostenibilidad y Clima SL.- Aiarako Udalaren 2030 Agenda Plana idazteko kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/604.- Aiaran bizikletak konpontzeko bi toki jartzeko Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/605.- V.SJ.Q.- Izoriako etxebizitzako portxea eraikitzeko eskatutako Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/606.- JR.A.U.- Soxon etxolako estalkia konpontzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/607.- E.Q.SJ.- Soxon fatxada margotzeko eta etxolako estalkia jartzeko obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/608.- Aranzadi Zientzia Elkarte.- 2021eko lankidetza-hitzarmenean emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/609.- 1/2021 zenbakiko kreditu-espeditzea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/610.- Etxeguren Zerbitzuak SLU.- Etxaurren Ikastolan ohiko argizatzea led argiarengatik ordezkatzeko hornikuntza adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/611- I-SAI PARTNER SALTO.- Udal-lokaletan sarraila magnetikoak jartzeko kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/612.- Gurasoen Elkarte Babio.- 2020ko lankidetza-hitzarmenaren dirulaguntza ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/613.- Orange Espagne.- 3/2021 energia-hornikuntzagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/614.- Aiarako Kuadrilla.- Gastu orokorretarako eta bestelakoetarako ekarpen ekonomikoa onestea, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/615.- Total Energies Electricidad y Gas España SAU.- 3/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/616.- Repsol Com. de Electricidad y Gas SLU.- 3/2021 gas-hornikuntzagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/617.- JA.A.U.- Olabazarreko etxebizitzan fatxada margotzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/618.- Ozekako Administrazio-batzarra.- Ozekan Ulibarri auzoko putzu-septikoa berritzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/619.- JM.J.A.- Olabazarren Belaunde auzoko 20 zenbakiko etxebizitzan balkoiak berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/620.- J.S.S.- Luiaondoko etxebizitzan pertsianak aldatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/621.- Agiñagako Administrazio-batzarra.- Agiñagan hondakinen edukiontzi-estalkia jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/622.- Soxoko Administrazio-batzarra.- Villanueva auzora doan bidea eta Orbila errekan harri-lubeta birgaitzeko obrarako Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/623.- 2020-2021 euskara-ikastaroak finantzatzeko laguntzen 2021eko oinarriak eta deialdia onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/624.- Arespalditzako Administrazio-batzarra.- Arespalditzan haurren parkea saneatzeko eta margotzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/625.- Global Factory SL.- Datu-babesari dagozkion betebeharrak betetzeko datu-babesaren ordezkariaren eta tratamenduen egokitzapenerako laguntza teknikorako kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/626.- Repsol Com. de Electricidad y Gas SLU.- 3/2021 elektrizitate-hornikuntzagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/627.- Goiener S.Koop.- Tokiko jabari publikoa okupatzeagatik aprobetxamendu tasa, 2021eko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/628.- 390/2021-B Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoan pertsonatzea, D. J.I. Alava Gorbeak jarritakoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/629.- Regsiti Comercializadora SLU.- Tokiko jabari publikoa okupatzeagatik aprobetxamendu tasa, 2021eko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/630.- 378-2021-E Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoan pertsonatzea, J.I. alava Gorbeak jarritakoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/631.- 384-2021-A Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoan pertsonatzea, Azkune Menoyo Mendivil eta Santiago Olabarría Menoyo jarritakoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/632.- Lantenoko Administrazio-batzarra.- La Blanca bide zaharra birgaitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/633.- KP. Luiaondoko Barrena kalea 9 zk.- 9C eta 9D partzelak hormatxoarekin eta sare metalikoarekin ixteko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/634.- Gasteizko Apezpikutegia.- Beotegiko finkak



bereizteko lizentziaren behar eza adieraztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/635.- J.G.M.- Luiaondon bi bizitzako etxea eraikitzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea. I. Fasea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/636.- 2021ean EAEko udaletako udal-kiroldegietako kideen kuotak ordaintzeko familiei laguntzak emateko deialdia onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/637.- Soxoko Administrazio-batzarra.- Soxon ur edangarri sarea berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/638.- Langileen eta alkatearen nominei dagozkien hilabeteko txostena onestea, 2021eko urria.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/639.-D.F.A. 2021eko hirugarren hiruhilekoan PFEZari egindako atxikipenak ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/640.- Etxaurren Ikastolako GE.- 2021eko urriko bi urteko ikasgelako psikopedagogia eta laguntza taldeari nominak ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/641.- Elkarkidetza Pentsioak.- Likidatze-faktura ordaintzea onestea, 2021eko urria.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/642.- 2021eko urriko alderdi politikoentzako ekarpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/643.- P.J.I.I. herritarrak 2021/434 Alkatetzaren Dekretuari jarritako aurkaratze-idatzia ez onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/644.- M.C.I.E.- Aparkatzeko txartelaren zahartzeagatik ordezkatzeta.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/645.- Axpo Ibería SL.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa, 2021eko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/646.- Endesa Energía SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa, 2021eko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/647.- Energía XXI SLU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu tasa, 2021eko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/648.- 2021eko musika- eta dantza-ikastaroak finantzatzeko laguntzen deialdia onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/649.- Gizarte Segurantzza DN.- 2021eko iraileko kuotaren ekarpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/650.- Etxaurren Ikastolako GE.- 2021eko iraileko bi urteko ikasgelako psikopedagogia eta laguntza taldeari nominak ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/651.- 2021eko udal-aurrekontuan Administrazio-batzarren parte-hartzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/652.- M.C.F.H.- Luiaondoko etxebizitzan komuna erreformatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/653.- P.M.L.R.- Zuhatzako etxebizitzako estalkian teila ordezkatzeko obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/654.- 2021eko urriko Udalbatzako kideen ekarpen



ekonomikoa onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/655.- Urbabil 2000 SL.- Luiaondon haurrek jolasteko gunea aldatzeko kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/656.- Aialur SL.- Aiarako mendiko ibilibideen sareetara bidea sartzeko homologazio zerbitzuaren kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/657.- O.M.O.- Txakurrak hezteko esparrua sortzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/658.- JA.I.V.- Zuhatzan behi-aziendaren ukuilua eraikitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/659.- J.G.M.- Luiaondon etxebizitza eraikitzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/660.- I.M.P.- Menagarain etxebizitzaren bereizketa horizontalerako lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/661.- Pilbacken SL.- Murgan pabiloi industrialia eraikitzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/662.- J.L.A.- Iraungitzeagatik bereizketa-lizentziaren eskaera artxibatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/663.- Erbiko Administrazio-batzarra.- Erbitik Lujoraino doan bidea birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea. II. Fasea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/664.- Alkatetzak 8/2021 zk. kreditu gehigarria onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/665.- F/2021/11 fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/666.- EALZ kudeatzeko gastu-zerrenda onestea eta ordaintzea, 2021eko urria.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/667.- N.G.M.- Kale-garbiketa egiteko eta gune publikoak birgaitzeko aldi baterako kontratatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/668.- Etxaurren Ikastolako GE.- Emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea, 2021 hitzarmena.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du galdetzeko 634/2021 zk. Dekretuagatik, Gasteizko Apezpikutegiak Beotegin finkak bereizteko lizentziaren behar ezaren Adierazpenari buruz; ez du oso ondo ulertzen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udal-teknikariaren txostenaren arabera, Apezpikutegiak eskatutako esku-hartzeak kasu honetan ez duela lizentziarik behar, eta horregatik jakinarazi zaio ez dutela bereizketa-lizentziarik lortu behar.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du ea lurra Apezpikutegiarena den.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hala dirudiela; nahiz eta gaineratu duen hirugarrenen jabetzen eskubideen kalterik izan gabe Udalak ematen dituen lizentzietan Udalak ez duela jabetza aztertzen ez horren gainean informatzen.

Ez dagoenez horren inguruko beste iruzkinik, udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

Jarraian, alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio premiazko arrazoiengatik azaroaren 25eko erakunde-adierazpena Udalbatzaren Osoak kontuan hartuko duela; ez zegoen deialdiarekin batera bidalitako Gai-zerrendan. Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan jasotakoaren arabera.

Gai hori bilkurak eztabaidatzearen eta bozkatzearen premia datengatik da, ezin baita atzeratu abenduko bilkurara arte, ez lukeelako zentzurik izango.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak aurreko iruzkinetan baliatutako arrazoiengatik premia justifikatu du gai Gai-zerrendan sartzeko.

Udalbatza lehenik eta behin gaiaren eztabaidaren jatorriari buruz mintzatu da, aho-batez onetsi dute bilkura honetan eztabaidatzea, eta beraz, hurrengo puntuan sartu da.

16.- 2021eko emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela-eta azaroaren 25erako adierazpena

Beste iruzkinik egin gabe, gaia bozkatu da eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Horrenbestez,

IKUSI DA.- 2021eko emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta azaroaren 25erako adierazpena.

Udalbatzako kide guztiek aho batez honako hau ERABAKI dute:

LEHENENGOA.- 2021eko emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko eguna dela-eta azaroaren 25erako adierazpena onestea. Hitzez hitz honako hau dio:

2021eko EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA AZAROAREN 25erako ADIERAZPENA AIARAKO UDALA

2003tik aurrera, emakumeenganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 101 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu,



2021ean zehar erail dituzten Erika Tavares, Conchi Gonzalez, Aintzane Pujana, Maria Pilar Berrio Jimenez eta Miarrizteko 75 urteko bizilaguna.

Emakumeenganako indarkeria emakumeei zuzendutako beldurtzeko tresna boteretsua da, ez ditzaten indarrean dauden genero-arauak desafiatu eta eraldatu. Beldurtzeko tresna hori zuzenean emakumeen kontra erabiltzen da, baina haien hurbileko eta maitatutako inguruaren kontra ere, min gehiago sortzeko modu gisa. Uste da haien bikote edo bikote ohien partetik indarkeria jasaten duten EAeko 10 emakumetatik 6k adinez txikiko seme-alabak dituztela, era berean biktima bihurtzen direnak.

Indarkeria bikarioa emakumeen kontra egiten den indarkeria da, hirugarren pertsonen bidez min psikologiko handiena eta larriena sortzeko asmoz, ankerkeriaren mailaren goia jotzen du horiek erailtzen dituztenean (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotea, etab.). Istanbulgo Hitzarmenean jasotakoa aplikatuz, kasu horiek genero-indarkeriaren beste adierazle bat dira. Seme-alabei egindako minak emakumeenganako erasotzaileen indarkeriaren tresna eta transmititzeko bide bihurtzen ditu haurrak.

Azkenengo lege-moldaketek badute figura hori jasota, bai sortzean zein adinez txikiko biktimen babes-neurrien hedaduran. Baina oraindik beharrezkoa da erne egotea genero-indarkeria ukatzen duten hitzaldi eta iritziei dagokienez, kasu horietan seme-alaben arriskua gutxiesten dute eta indarkeria hori borrokatzeko tresna juridikoak zalantzan jartzen dituzte. Iritzi horiek adinez txikikoak eta emakumeak berriro biktimizatzen dituzte, haien salaketak susmo pean jartzen dituzte, amak zigortzen dituzte, hauen lekukotzak zalantzan jartzen dituzte eta guraso-ahalaren eskubidea gordetzen dute emakumeen eta adinez txikikoen segurtasunaren eta berreskuratzearen gainetik.

Haien seme-alaben bidez, emakumeen kontrako indarkeria sistematikoaren erabilera-mota horren aurrean, baita emakumeek emakume izateagatik jasaten duten kontrola, hertsadura eta minaren aurrean ere, euskal-erakundeek horren aurka borrokatzeko erantzukizuna dugu; aintzat hartu behar da “ez direla kasu bakanak”, baizik eta egiturazko desberdinkeria-egoera bati erantzuten diotenak, eta ikuspegi feminista batetik heldu behar zaie.

Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza; beti ere, indarkeria mota hau pairatzen duten emakumeen ahalduntzea helburu duten ikuspuntu batetik. Horretarako, instituzio publikoek gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da ezarritako protokoloekin lagundu dezaten, eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitezen.

Hori dela eta, Aiarako Udalak honako konpromiso hauek hartu ditu:

- Aiarako Udalak ez du murrizketarik egingo 2022eko berdintasun aurrekontuetan, eta gainera, berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
- Indarkeria bikarioaren errealitatea ikusarazten lagundu eta behar bezala artatu, besteak beste honako ekintza honekin: indarkeria matxistaren biktimen koordinazio eta arreta protokoloak eguneratzen eta protokolo horietan adinez txikikoak sartzen, Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria mota ezberdinen artean; Kuadrillako protokoloan ere hala jasota dago.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adinez txikikoekin antzemate eta esku-hartze goiztiarrean laguntzea udal-zerbitzuen eta beste eragile batzuen laguntzaren bidez (hezkuntza, osasuna, polizia, etab.) eta adinez txikikoak haien kargura dituzten emakumeek eta kaltetutako pertsonak dituzten beharrezkoen eta baldintzei erantzutea. Hala, protokoloaren jarraipen-mahaietan zehazki adinez txikikoen gaia landuko da.



- Indarkeria matxistaren adinez txikiko biktimen esku-hartzeko eta babesteko prozesuak hobetzea, eskumenen esparruan, ikuspegi feminista duen esparru intersektional, integral eta holistikotik.
- Erdigunean jartzea biktimen eskubideen neurri guztiak eta haien ahalduntzea, eta erabateko arretan laguntzea, epaiketa-prozesuan duten inplikazio edo laguntza-maila albo batera utzita.
- Udaleko langileen berdintasun-prestakuntza sustatzea, batez ere, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurrean erantzun behar duten langileak, genero- eta giza eskubide-ikuspegiarekin.
- Aiarako Udalak eremu ezberdinei (hedabideei, enpresei, hezkuntza-zentroei...) zuzendutako indarkeria matxisten prebentzio eta salaketa kanpainak abiatuko ditu, eragina-ebaluazioa jasoz
- Berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeriaren kontrako herrialdeko hitzarmena lortzeko lanean jarraitzea, herritar guztien jarrera aktiboa behar dugulako indarkeria matxistarik gabeko gizartea lortzeko.
- Aiarako Udalak, herriko mutil eta gizonei zuzendutako lanketa berezituak abiatzeko konpromisoa hartzen du, afektibitatea, harreman ereduak, maskulinitate ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak, eta parekidetasuna lantzeko besteren artean; eta horretarako programa zehatzak aktibatuzko konpromisoa ere hartzen du.
- Erakunde honetatik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.

Herritarrei indarkeriaren biktimei laguntzeko eta artatzeko baliabide-sarea gogorarazi nahi diegu, besteak beste SATEVI (900 840 111) indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzua eta ZEUK ESAN (116 111) haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzua.

Halaber, herritarrak deitzen ditugu, azaroaren 25ean Aiaran emakumeenganako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunagatik deitutako mobilizazioetara batu daitezen,

Jarraian, alkate jaunak, Udalbatzari jakinarazi dio premiazko arrazoiengatik EH BILDUK interes publikoko proiektuei buruz aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa Udalbatzaren Osoko Bilkurak kontuan hartuko duela; ez zegoen deialdiarekin batera bidalitako Eguneko Gai-Zerrendan. Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan jasotakoaren arabera.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du haiei zuzenketa osoko bilkuraren eguneko 10:20ean heldu zaiela eta hortaz, ez dutela astirik izan aztertzeko, ezta 24 ordu ere. Gaineratu du batzuetan, haiek idatziak sartu dituztela premiaz artatuak izan daitezten eta ezetz esan zaiela ez zegoelako astirik begiratzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du zuzenketa hain denbora laburrekin bidali dela BILDUren mozioaren erantzuna zelako, zeina eguneko gai-zerrendan sartu den osoko bilkuraren egun berean iritsi zelako eta ez zelako batzordeetan artatu.



Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak aipatu du EH BILDUK bidalitako mozioa talde guztiek aztertzeko hainbat egun egon direla, baina zuzenketa hau aztertzeko ez direla ezta 12 ordu ere egon. Mahai gainean jarri den argudioa beste batzuetan beste idatzi edo mozioen premia ez adosteko erabili den berbera da, ez zirelako garaiz heldu gainerako taldeek aztertzeko, eta ulertu egin da, beraz, orain gauza bere eskatzen dute.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) komentatu du datorren osoko bilkuran landuko dela, beraz, ez da premiazko-adierazpena bozkatuko.

17.- Eskaerak eta galderak

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hitza hartu du galdetzeko ea nola dagoen AOT plazaren espedientea.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio gaia lantzen ari direla, duela gutxi plaza hori atera duten inguruko udalei eta HAEEri ere galdetu dietela.

Idazkari andreak hitza hartu du eta azaldu du oinarriak ia bukatuta daudela, HAEEari laguntza eskatu zaiola prozedura osoa azter dezaten eta izapide guztietan lagun diezaguten. Gaineratu du, hurrengo batzordeetan kideei oinarrien berri eman ahal izatea espero dutela.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du plaza ahalik eta azkarren bete behar dela; izan ere pertsona hori izango da hainbat zeregin garatzeko Administrazio-batzarretan lagunduko duena.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du haiek ere plaza betetzeko interesa dutela, hala pertsona horrek idazkaritzako espedienteen izapidetzean lagunduko duelako, idazkaria ez dagoenean hura ordezkatzeko duelako, eta finean, Batzordeei eta herritarrei lagunduko dielako.

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak galdetu du Aiara Oinez foroaren diruagatik, azkenean zertara bideratuko den jakiteko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du dagokion batzordean komentatu zen moduan urtea amaitu baino lehenago, ikuspuntu psikologikotik pandemiaren intzidentziaren kudeaketarako tailerrak egingo direla, bi edo hiru izango dira; eta bestalde, GKE batekin (osasun-zentroen lan-karga handia ikusita) Etxaurren Ikastolako irakasleentzat eta zerbitzuetako langileentzat bizkortzeko eta desfibriladorea erabiltzeko trebakuntza prestatu da; izan ere, bertan desfibriladore bat dago eta, ahal dela, tailerrak 10-14 pertsona bitartekoak izango dira.



- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak galdetu du hiltegia ixteagatik kaltetutako abeltzainen laguntzei buruz.

Unai Campo Arenaza (EAJ-PNV) zinegotzi jaunak erantzun du gaiak berdin jarraitzen duela, abeltzainekin hitz egiten egon dira eta Eusko Jaurlaritzak zentzu horretan laguntza-lerroa ateratzearen zain daude.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hitza hartu du gaineratzeko laguntza-lerroen arloan Eusko Jaurlaritzatik zerbait irten arte itxaron beharko dutela, eta egoera apur bat aztertu behar dela ere; egoera konplexua da eta laguntza nori zuzenduko zaion zehaztu behar da, lizentzia daukaten ustiapen-titularrei, Aiara erroldatutako titularrei, abeltzaintzan altan emanda daudenei, edo ez daudenei... egoera nahiko konplexua da. Gainera, eskumena duten erakundeek (tokikoak ez direnak) horren inguruan zerbait egin dezaten itxaron behar da.

- Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hitza hartu du esateko etxeak birgaitzeko laguntza bat irten dela. Batzuetan Batzordeetan galdetu izan dute ea zer egin zitekeen jendeari haien ondarea mantentzen eta suntsituta bukatuta ez dezan laguntzeko, horri dagokionez zerbait egin daitekeela uste baitute. Hausnarketa egin daiteke eta Udalak esku har dezakeen aztergaien zerrenda bat egin, jendeari haien ondarea mantentzen laguntzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du dagoeneko Administrazio-batzarrei dirulaguntza horien berri eman zaiela eta argitaratu direla. Gainera, bateragarriak dira dagoeneko dauden beste finantzazio-lerro batzuekin, baina ezberdindu egin behar da Udalak eskura dituen tresnen eta eraikinak ia beti esku pribatuenak izatearen artean. Bestalde, komentatu du ez dutela inolako arazorik hirigintza-batzordean hausnarketa egiteko eta zentzu horretan EH BILDUK egingo duen proposamena eztabaidatzeko.

- Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak eskatu du Euskararen Erabilera-Plana igortzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du laguntzen ordenantzarekin batera bidali ziola uste zuela.

- Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak galdetu du zer gertatzen den Aiarako Turismo Bulegoarekin; denbora darama itxita eta jakin nahi du zein asmo dagoen horrekin.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Batzorderen batean komentatu den moduan, turismo-bulego horrek ez duela zentzurik ezin bada Kexaako monumentu-multzoa ikusi. Kezka hori Aldundiari jakinarazi zaio, gaur gaurkoz multzoaren bisitak antolatzen dituen Hipólito Aita delako, bere eskuragarritasunaren arabera, baina inork



ezin du bisita bermatu. Hori dela eta, Aldundiko Kultura Sailari komentatu zaio ulertzen zela Airako Turismo Bulegoak zerbitzu hori eman behar zuela, monumentu-multzoaren gida edo bisita, bai bulegoaz arduratuko den pertsonari prestakuntza emanda, edo erabakitzen den moduan jarduten.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak galdetu du ea hori Aldundiak erabaki behar duen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du museoa Aldundiarena dela, eta monumentu-multzoa Aldundiarena eta dominikarren parte pribatua dela.

- Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak galdetu du Osasun-Zentroaren garbiketaren kontua ea nola gelditu den.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du askotan Eusko Jaurlaritzaren Ondare zerbitzuarekin jarri direla harremanetan, sail horri dagokiolako kudeaketa hori. Lehen kontu horiek modu batean konpontzen ziren, eta aldatzen saiatzen ari gara haiek mantentze osoaz ardura daitezen, eta noizean behin deitzen diegu, baina oraindik ez dugu ezer lortu.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogeita hamabost minutu direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko urriaren hogeita batean.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA.

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.